

uk

174. zenbakia / 2010eko maiatzaren 3a



URTERO 20€

Harpidetu
eta jaso UK
zure etxean,
hamabostero.
Urtero 20 euro.


Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki.
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri.
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean.
Urtero argazki zahar eta barriak.
Urtero zure proiektuak lau haizetara.
Urtero 20 euro.



neuk ere gura dot

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu,
Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTITZETIKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Jose Antonio Agirri omenaldia, Getxo.
7. LEHEN ETA ORAIN. Barrika, bista orokorra.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Martina Boller.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Prentsa kioskoak.
28. ARGAZKIA. Umea zaldian, Getxo.
30. BERBETAN. Francis Diez.
34. FOTOGRAFIA. Zamaketariak Nepalen, Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Comète sarea zinera.
43. MUSIKA. Leioako Pop-Rock lehiaketa. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Erlea aldizkariaren bigarren zenbakia. Erreseinak.
45. KIROLAK. Cabo Billano surf eskola.
46. ELKARRIZKETA. Gorka Hernandez, Herria Abian plataforma.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. L'Ancora, Getxo.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Astrabuduko "Abxazpe" mendi taldekoak, 1956.
54. AITORMENAK. Yahaira Agirre.

Azala: Asier Mentxaka


www.ukaldizkaria.biz



30 Francis Diez

Berbetan

Desiratik, Desiraz eta gurarituta
berba egin digu Doctor Deseo
taldeko abeslariak.



11 Martina Boller



54 Yahaira Agirre

Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

Bisita egizu gure web berria
eta hartu **txanda on-line**
www.renaultleioa.com

www.renaultleioa.com

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Apostu-etxeak

Banuen entzunda Jaurilaritzak lege barri baten bitartez gisa honetako negoziak baimenduko zituela, baina gertakari txiki batek ekarri nau honi buruz gogoeta egitera. Bilboko alde zaharrean izan zen, Aste Santuko egun santu horietako batean (santua eta bazkoa, ez dut ondo gogoratzen, baina bai, kaleak hutsik zeuden eta dendak itxita). Mamu bihurtutako Bilbo horren erdian, jendez gainezka zegoen lokal bat topatu nuen, parez pare. Beteta zegoela esaten dudanean, jendea kabitu ezinik zegoela esan gura dut eta ilarak kanpoan jarraitzen zuela. (Eta hara non, den-denak gizonak ziren) Postura egiteko tradizioa ezaguna da gurean, eta badirudi oraindino ere errotuta dagoela. Tradizioak baina, negozio-molde barriei ireki die bidea: legearen barruan apostu-presen-tzialak egiteko aukera, egunean hamabi ordutik gora eta urtean 365 egunez irekita dauden apostu-etxeetan. Erraz zabaltzen da bidea, tartean negozioa baldin badago: dekretu barri bat egitea bezain erraza da. Jakin-minak internetera eroan nau, zenbaki bila. Badirudi Uribe Kostan pare bat apostu-etxe dagoela (momentuz), baina asko dira honetan dabilizan enpresak, eta horrenbeste izen eta zenbakiren artean zoratu egin naiz. Kuriosoak dira darabiltzaten izenak (Kirol-jokoa, Reta, Garaipen-Victoria...) eta sloganak: No risk, No glory. Arriskurik barik, zorionik ez.

gu geu**Bidaiak eta kale ospakizunak**

Tenperatura epelen eta eguzki izpien eragina nabaritzen hasi gara UKn. Ez dugu hori esaten, bulegoa berotu edo azala beltzarandu zaigulako (bulegoak fresko jarraitzen du; azalak zuria galtzen hasi den arren, asko falta zaio oraindik beltzarantzeko). Orriak betetzeko heltzen zaizkigun gaiak dira eguraldi aldaketaren iragarleak guretzat. 174. zenbaki honetan bidaiak (edo, hobe esanda, bidaiariak) eta kaleko ospakizunak dira protagonista.

Alde batetik, Sopolako Koadrila Eguna, Getxoko San Isidro jaiak, Erandioko Gazte Eguna eta Lamiakoko euskal jaia. Dirudienez, taberna zulotik ateratzen hasi gara eta maiatzean Uribe Kostako kaleak kolorez, musikaz eta parranda giroaz bustiko dira.

Bestetik, eskualdeko zenbait bidaiari abenturazaleen proiektuak. Kepa Acero laster abiatuko da munduko bost olatu bereziren bila, kontinentez kontinente. Iker Galin eta Cormac Mc Donnell aldiz, Plentziatik Mongoliara joango dira elkartasun bidaiari. Ana Gonzalez sopoloztarrak, bere abenturen berri eman digu.

Baina bidai eta ospakizun horiek guztiak alde batera utzi eta herritik mugitu barik hilaren 13an egingo dugun estreinaldi mundialera gonbidatu nahiko genizueke. *Getxo, akordaten naz* dokumentalaren bigarren partea estreinatuko dugu Andra Mari elizan, arratsaldeko 8etan. Herriko historia biziak asko daukalako esateko, hurbildu eta adi entzun!

UK-ko lantaldea**Iritzia**

Mutrikutik heldu zaigu oraingoa iritzi atalerako eskutitza, bertan bizi baita Joseba Palenzuela, Jon Rosales preso politiko algortarraren osaba.

Ondo lo egin, Jon

Gazte bat hurbildu zait kristalaren beste aldera, eta esan dit gauean esnatu egiten dela, orduro esnatzen dela, eta hogeit bat segundora berriz loak hartzen duela, ordu-bete barru berriz ere esnatzeko.

«Gazte hori hiru egunetan egon zen inkomunikatuta eta ordutik ez du bakerik lortu»

buruan, gibelean, eta potroetan ere bai. Kolpeak sentimenduetan.

Dio, beharbada burua poltsa baten barruan sartua izan zueneko itolarriak esnatzen duela gauean, orduro, ordu batean bai eta hurrengoan ere bai. Horrela dabil azken hilabeteetan. Eta esperantzaren irudi den berdeari beldurra hartu diola dio. Baita erratz baten kirtena ikusten duenean ere.

Gazte hori hiru egunetan egon zen inkomunikatuta, eta ordutik ez du bakerik

luntasunean oihuak entzuten dituela dio, bere aurkako irainak, bere hurbilekoen aurkako mehatxuak. Kolpeak nonnahi somatzen dituela dio, esnatu aurreko segunduetan. Kolpeak

lortu atsedenerako behar duen loan.

Egunen batean beharbada lortuko du bi edo hiru edo, auskalo, beharbada zazpi ordu jarraian lo egitea, eta amets egitea ere bai... berak jakingo du zein ametsetan.

Ez da izan gazte hori inkomunikatuta egon den lehenengoa, eta, tamalez, azkena ere beharbada ez da izango. Aurretik izan ziren bere lagunartekoak ere, aurretik izan ziren makina bat gazte ere. Guztiak kolpatuak, guztiak zigortuak. Eta kolpatutako eta zigortutako gurasoak, aitona-amonak, neba-arrebak, senideak, lagunak, eta herki-deak ere asko izan dira. Gu denok.

Kristalaren beste aldeko gazte hori iloba dut, Jon Rosales. Eta, bide batez, lerro hauen bitartez eta familia osoaren izenean, eskerrak eman nahi dizkizuet hitzez zein pentsamenduz, bakoitzak bere pentsaera politikotik, babesa eskaini diguzuen lagun guztioi. Uste ez dela ere, hitz horiek oso goxoak gertatzen dira eta asko eskertzen dira halako momentuetan. Eta egunean hogeita lau orduko dedikazioa edozertarako eskaini digutenei zer esan, bada, egunean hogeita lau orduko laguntasuna eskaintzea ez bada. Bai, horrelako jendea egon badago oraindik, lagun hurkoari euren dedikazioa bueltan ezer espero gabe emateko prest dagoena. Eta hala izaten jarrai dezagun, euskaldunok ezaugarri nagusienetako bat horixe dugu eta, egin behar denean dena emanda egitea, bueltan ezer etorriko denik pentsatu gabe.

Amaitu aurretik, eskatu nahi dut komunikabideetan agertu direnetatik laurdenak hartzeko kontuan, gezurraren gainean eraikitako iritziak arriskutsuak izan daitezkeelako objektibotasunean sinesten duenarentzat behinik behin. Entzun edo irakurritako zerbait kontrastatu nahi baduzu, zerbaiti buruz egia jakin nahi baduzu, Joni berari galdetu etxera bueltan datorrenean.

Joseba Palenzuela Arrieta
(Jon Rosales Euskal Preso Politiko algortarraren osaba)

[irudia]

SAN INAZO (GETXO), 2010EKO APirilAREN 15A

Agirre eta Lekube'tar Jose Antoniori / 50 urte bete dira aurrean Jose Antonio Agirre Lekube hil zenerik; hori dela eta, hainbat ekitaldi egiten ari dira han eta hemen bere omenez. Getxoko Udalak omenaldi xumea egin gura izan zion apirilaren; izan ere, Getxoko alkate izan zen Agirre 1931 eta 1933 urteen artean. Euskadiko lehen lehendakariak bere emazte eta seme-alabakaz konpartitutako etxean, Algortako Miramar kalean, oroitzen plakarri estalkia kendu ziotenekoa duzu goiko argazkia; Aintzane eta Joseba Andoni, Agirrearen seme-alabak izan ziren ohorezko gonbidatuak. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

EGIN KLIK



aldizkariari



www.ukaldizkaria.biz

- Azken zenbakia
- Argazkiak
- Artxiboa
- UK ekoizpenak
- UKagenda

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

[lehen]



INDALECO OLAGUEREN

[orain]



ASIERMENDIAGA

Iraganez doa denbora* beti / BARRIKA BISTA OROKORRA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > bankua



2010eko otsaila, Urduliz

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Espainian behera*

Banku honek baditu
hamaika istori,
hemen batzen baitziren
Ramon (e)ta Bitori.
Elkar maite zutela
ez esan inori...
Ondo gorde ezazu
sekretutxo hori,
bertan eman zituzten
muxu bat edo bi...

"Kontuz ibil zaitezte,
ez harririk bota!"
Amak botatzen zigun
gehienetan bronka.
Nork urrunago bota
hori zen erronka!
Korrika irtetzen ginen
baten bati jota,
banku honek jasan ditu
hamaika borroka.

Orain bankua dute
ahaztua zeharo,
Gizartea aldatu da
hori argi dago.
Txatetik ligatzea
ei da errazago.
Denborapasarako
zinema nahiago.
Bankuak iraungo du
denboran luzaro?

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai lezaguza atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



Luberr Basolanak, SL
Axe ibalertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko organitze lanak eta arete lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, organitzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, seropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaitza apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

beka > Julio Araluzeren omenezko bekaren hirugarren deialdia

2008ko bekari esker filmatu zuten *Itsasoaren alaba* dokumentala

Maiatzaren 17ra arte proposamenak aurkez daitezke Julio Araluze algortarraren omenezko ikerketa beka eskuratzeko. GITE-IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragileak sortu zuen beka 2008an, Araluzeren ikerkuntza lanaren jarraipenaren isla gisa. Euskal Herriarentzako interes berezia duten gai sozialek eta historikoez izan behar dute ikerketa gaiak, zentzurik zabalenean ulertuta. Gainera, lehenetsuta izango dute euskaraz sortutako eta egindako lanek, baita emakumeen aldagai txertatutako dutenek ere. Lanen originaltasuna, sendotasuna eta freskotasuna baloratuko dute. "*Euskal Herriaren errealitate politiko, sozial edota kulturala aztertu eta azalarazi*" gura du elkarteak. Lanak garatzeko 3.000 euroko laguntza jasoko dute aukeratutakoek. Julio Araluze filosofia irakasle eta Gite-Ipes-eko kide izan zen eta ezker abertzaleko atxikimendu aktibo eta militantea. ○

hizkuntza gutxituak > Redadeg Britainiako II. Korrika hastera doa



Euskal Herriko adibideari jarraituz, Britainian eta Irlandan orain gutxi hasi dira Korrikan

Maiatzaren 10etik 15era izango da *Redadeg*, hizkuntza bretoiaren aldeko lasterketa. Bigarren ekitaldia izango da aurtengoa. 2008an egin zuten aurreneko aldiz, eta aurtengoak, ordukoak baino bostehun kilometro gehiago izango ditu, hau da, 1.200 kilometro; Roazhon eta Pondin herriak lotuko ditu. Antza, Euskal Herriaren AEK-k antolatzen duen Korrikari begiratu zioten bretoiek euren egiteko. Antolatzaileek diotenez, "*bretoia ikasteko, erabiltzeko, eta ofizialki onartua izateko deia da*" ekimena. "*Etorkizunera begirako borondatea eta konfiantza*" agertu gura dute ekimen herrikoiaz. Eta ez da Europan kasu bakarra. Irlandan ere euskaldunen ekimena aintzat hartu eta orain aste gutxi bukatu zuten irlandar hizkuntzaren aldeko lasterketa. ○

euskara > Mendebalde jardunaldiak Bilbon, maiatzaren 7an eta 8an

“Mendebaldeko hizkerea aztertu, egokitu eta prestigiatuaz, euskerea bera indartzea” dute helburu jardunaldiok, *Bilbon mundua ikusi* lelopean. Bilboko Euskaltzaindiko aretoan egingo dituzte, maiatzaren 7an eta 8an, beste behin ere. Ekitaldi bi izango da egun bakoitzeko. Hilaren 7an, barikuan, *Bilbo eta modernitatea* eta *Bilbo eta euskera* gaiak aztertuko dituzte, biak arratsalde. Biharamun goizean, barriz, *Euskalduntzeko ekimenak* eta *Euskal komunikabideak Bilbon* izango dira gaiak. Azken hori mahai-inguruan aztertuko dute. Matrikula egin daiteke maiatzaren 6ra arte. Informazio gehiago eskuratzeko Euskararen Etxera jo (Bilboko Agoitz plazako lehenengoan), 94 402 80 84 edo 639 15 27 87 telefonoetara hots egin, mendebalde@euskalnet.net helbidera mezua bidali edota www.mendebalde.com gunean begira dezakezu. Gainera, EHUko Irakasle Eskoletako ikasleentzako aukera askeko kreditu baten balioa izango du. ○

Mendebaldeko euskara aztertuko dute jardunaldiotan

sarea josten > eskualdeko hedabideok mahai-ingurua egin genuen

Sarea Josten ibili gara, Koska Irratiko, ukberri.net agerkari digitaleko eta UK aldizkariko lagunok ere. Zehazki, mahai-ingurua egin genuen apirilaren 21ean, Algortako Aldai Patronatuan, azken asteotan egin diren ekimenakaz bat eginez, Uribe Kostako euskarazko komunikabideen egoera ardatz. Eztizen Miranda kazetariak zuzendu zuen berbalditxoa eta hiru hedabideen egoeraz eta herritarren eta komunikabideen arteko harremanaz berba egin genuen, besteak beste. Entzuleen galderek, proposamenek eta kritikek ere tartetxoa izan zuten, noski! Esperientzia oso polita eta baliagarria izan zen, irakurle eta entzuleengana gehiago hurbiltzeko parada izan genuelako, eta era horretan, beren ideiek gure egitasmoa hobetzen lagunduko digutelako. Eskerrik asko denoi! ○

ukberri.net agerkariak utzitako argazkia



“Lehen marisko gehiago egoten zan paellatan, oin presentziari emoten dako inportantzia”

Martina Boller > Getxoko paella txapelketako epaimahaia

Elkarriketagatik urduri dagoela esan digu Martinak Malakaten batu garenean. Fikan (Bizkaia) jaio, ezkondukoan Suitzara joan eta orain 43 urte etorri zen Getxora: *“Beharrean egon naz beti; jairen bat, ahal izan dudanean”*. Hain zuzen ere, neba-arrebakaz La Ventan beharrean zegoela ezagutu zituen Itxas Argiakoak: *“Gazteak jatetxera etorten ziren bazkaltzera; asko aldatu da Itxas Argia, lehen herriko gazte guztiak geunden, orain gutxi dira”*. Andra Mariko zelaietan egiten den paella txapelketan, epaimahaikide izan da azken 32 urteotan. 200 paella inguru dastatu behar ditu urterero; hala ere, “fazilla” egiten zaio aukeratzea. Goi-mailako txapelketetan bezala presio handia egoten da: *“Premioak banatzean tongo eta horrelakoak entzuten dira. Lehen marisko gehiago egoten zan; orain presentziari emoten dako inportantzia”*. Laster, erretiratu gura duela aitortu digu: *“Nekatuta nago, urteak ez dira pasetan alperrik”*. Hil honetan ospatuko dituzte getxoztarrek sanisidroak: *“Gaztetan etxetik urteteko denborarik ez genuen; gauean idi-probak ikustera joaten ginen soilik. Lobak txikiak zirenean, tenporadako fruituak eroaten genizkion San Isidro-ri”*. Kooperatibako hamaiketako eta meza ondo gogoratzen ditu: *“Meza oso polita izaten da, alkatea ere etorten da!”*. Gustura sentitzen da Getxon: *“Dena gustatzen zait; danak ezagunek, etxeko moduen!”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

AreetanVilla de Pientzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Ondare ukiezina zabalduz

Zer ikusi ha ikasi eskola materiala eta **Getxo akordaten naz II** dokumentala aurkeztuko ditugu maiatzean; **herriko ondarea** hobeto ezagutzeko aukera **aitite-amamen ahotik**

Herriko ondare inmateriala gordetzeko eta zabaltzeko egindako egitasmo bi aurkeztuko dituzte maiatzean. Alde batetik, Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak Labayru ikastegiaren laguntzagaz diseinatutako **Zer ikusi ha ikasi** eskola materiala. Bestetik, Fredi Paia, Aitor Gisasola eta Fermin Aiok egindako **Getxo akordaten naz** dokumentalaren 2. partea.



Fredi Paia eta Aitor Gisasola Getxo akordaten naz-eko lehen ataleko grabaketa batean

Ukitu ezin bada ere balio kalkulazina dauka ondare inmaterialak. Zertan jolasen zuten gure aitite-amamek? Zein ipuin kontatzen zuten ohera sartu aurretik? Herria herritarren ahotik hobeto ezagutzeko aukera emango duten proiektu bi plazaratuko dituzte maiatzean.

Alde batetik, **Zer ikusi ha ikasi** eskola materiala aurkeztuko dute maiatzaren 8an, goizeko 10:00etan Faduran. 2005-ean abiatu zuten egitasmoa Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak eta Labayru ikastegia arduratu da aurrera eroateaz. Herriko 65 urtetik gorako 120 gizon-emakume euskaldunei elkarrizketak egin dizkiete, guztira 500 orduko materiala bilduz. Horretatik, eskola materiala sortzea izan da lehen pausoa. Kurrikulura egokitutako materiala, Uribe Kostako zentro guztietan banatuko da eta haur eta lehen hezkuntzan erabiltzen hasiko da datorren ikasturtean. Eskualdeko euskalkia lantzeaz gain, sineskerak, musika, ospakizunak,

mitologia, olgetak eta herriaren ondarearen zati diren beste zenbait gai lantzen dira materialean. DVDagaz batera, adin tarte bakoitzari egokitutako materiala sortu dute: hiztegia, ariketak, denbo-

«Hilaren 8an goizeko 10:00etan aurkeztuko dute eskola materiala Faduran; 13an, dokumentalaren 2. zatia estreinaldia Andra Mari elizan 20:00etan»

rapasak e.a. Maiatzaren 8ko aurkezpenean, omenaldia egingo zaie informantei, euren laguntza eskertzeko.

Hilaren 13an, San Isidro jaien egitarauaren barruan, **Getxo akordaten naz 2** aurkeztuko dugu Andra Mari elizan arrastiko 20:00etan. UK-k ekoiztutako

eta Fredi Paia, Aitor Gisasola eta Fermin Aiok egindako dokumentalaren 2. parte honetan ere, pertsonak izango dira ardatz; horrela azaldu digu Paia: *“Espazioa eta denbora konpartitu dute protagonistek. Guztiak dira getxoxtarrak, euskara jaso zuten gurasoengandik eta 70 urtetik gorakoak dira”*. Paia ondare inmateriala batu eta zabaltzeko azken urteotan egindako lanaren barruan kokatuta dago dokumentala. Lehenengo zatian landu ez ziren hainbat gai landu dituzte oraingoan, umeen olgetak, mitologiagaz lotutako gaiak eta belarretan oinarritutako herri medikuntza, besteak beste. Estreinaldira hurreratzen denak *“Getxon sorginak non elkartzen ziren”* jakin ahal izango du gainera! Kopia eskuratu ahal izango dira Andra Marin 3 euroren truke. ○

Aldapako beilatokiagaz

aurrera doa Udala; zenbait auzokide kexu dira



Azaldegui okintza-lantegia zenean egingo dute beilatokia

Ollarretxe kaletik izango du sarbidea Aldapa auzoko Beilatokiak. Horrela adierazi zuen Imanol Landa alkateak auzokoak bildu eta gero. Batzar bi egin ditu Udalak auzokoan ordezkarizagaz; horietan hartutako konpromisoak direla eta, zenbait eskari aurkeztu zizkion beilatokia egingo duen enpresari. Horieta bat izan zen sarrera aldatzearena. Egindako bileratan, Udalak abiapuntutzat jarri zuen enpresak aurkeztutako jarduerak indarrean dagoen lege urbanistikogaz bat datorrela eta eskatutako lizentzia ukatzerik ez dagoela.

Azaldegui okintza-lantegia zenaren eraikinean egongo da beilatokia eta sartzeko arrapala prestatuko dute. Landak esandakoaren arabera, Gobernu Taldeak HAPO aldatzeko proposamena eroango

du Udalbatzara, beilatokia inolaz ere errausketa-labea bihur ez dadin; neurri horregaz, auzokideak duen konpromisoa bermatu gura du alkateak.

Hala ere, Aldapa auzoko hainbat etxetan *“Beilatokirik ez”* idatzita duten kartelak ikus daitezke. Apirilaren 16an udaletxeko atarira eroan zuten aldarria auzokideek; Luis Fernando auzo elkarte-kidearen arabera azpiegitura *“inposatzen”* ari zaie eta proiektua legezkoa izan arren, horren gaineko informaziorik ez zaie heldu. Bizilagunak, ez daude pozik Udalak Aldapa auzoagaz duen jarreragaz: *“Behar diren hainbat zerbitzu ere ez ditugu, haurtzaindegia adibidez. Getxo Antzokia bezalako obra erraldoietan murgilduta dabilta eta ezer gutxi axola zaizkio Aldapa, Zubilleta...”*. ○

III. BERDINTASUN PLANA AURRE DIAGNOSTIKOAN

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana diseinatzei ekin dio Getxoko Udalak. Hasteko, egoeraren diagnostia egin gura dute eta horretarako herritarren parte-hartzea bultzatu gura izan dute. Apirilaren 21ean hasi ziren alorretako lan taldeakaz bilerak egiten. Orain arte enplegua, hezkuntza, gazteria, osasuna eta garraio eta ingurune lantaldeak batu dira. Maiatzaren 3an, kultur aniztasuna eta euskara lantaldeen txanda izango da, 19:00-21:00 Villamonteko Kultur Etxean. 6an aldiz, emakume taldeentzako deialdia egin da, Romoko Kultur Etxean, 18:30-20:30. Prozesu parte-hartzaile honen ondorioak ekainean argitaratuko dituzte.

DOSIFIKAZIO SISTEMA HERRIKO FARMAZIETAN

Udalak eta Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialak sinatu barri duten lankidetzahitzarmenari esker, etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileek, Sendagaien Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua jaso ahal izango dute herriko farmazia batzuetan. Getxon dauden 26 farmazietatik 17k hartuko dute parte ekimenean. Zerbitzuaren erabiltzaileei, aste osoko pilulak gordetzeko tresna emango zaie hila honetatik aurrera. Horrek, sendagaien erabilera hobetzea ahalbidetuko du. Etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duten 350 familiak sartu ahal izango dira programan, horretarako, baieztapena eman beharko dute.

ZIRKULAZIO ALDAKETAK SALSIDU INGURUAN

Algortako Salsidu Zubia eraisteko lanek, Salsidu Etorbideko gune hori oinezkoentzako eta ibilgailuentzako moztea ekarri zuen apirilean. Lanak bukatu arte, iraila arte gutxi gorabehera, oinezkoentzako bidea egungo zubiaren ondoan kokatutako ibiltoki batetik izango da. Ibilgailuentzako aldiz, Zubilleta kalea, Izaro eta Aldapa kaleen artean, norabide bikoia izango da, bertatik pasa ahal izateko; horretarako, aparkatzeko tokiak desagertuko dira.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialea
Etxalde 2 - Pabioi 11
48330 Gortiz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Kepa Acero > *5 waves 5 continents* proiektua

“Leku eta olatu berezien bila noa,
70. hamarkadako surflariak bezala”



Maiatzaren 16an abiatuko da Kepa Acero Namibiarantz. www.kepa-acero.com

Bidaia, surfa eta artea; guztiak uztartuko ditu Kepa Acero algortarrak hurrengo abenturan: 5 waves 5 continents. Pou anaia mendizaleen, zein Unai Basurkoren esperientziak abiapuntu izan ditu proiektua diseinatzerakoan. Maiatzaren 16an Namibiarantz (Afrika) abiatuko da lehenengo olatuaren bila; horren ostean beste lau kontinente eta olatu etorriko dira. Azkena, etxean, Mundakako olatu mitikoa. Bere web orriaren bitartez, abentura jarraitzeko aukera emango digu.

—Nondik dator *5 waves 5 continents* proiektuaren ideia?

—Bidaia ezberdina egin gura nuen. Asko mugitzen naiz, baina bidaia mugatuak izaten dira: 15 egun, olatuak hartu eta jendea ezagutzen hasten naizenerako bueltatu behar. Iturri ezberdinetatik edan dut. Gakoa, *7 pareta 7 kontinente* proiektuaren Pou anaien hitzaldia izan zen. Unai Basurkoren esperientzia ere aztertu nuen. Hortik hartutako ideiak eta nireak batu eta antzeko zerbait egitea erabaki nuen. Asko pentsatu barik urten da; lar pentsatzen direnak ez dira egiten.

—Nondik joango da bidaia?

—Hasteko, Namibiara (Afrika); ondoren, Indonesiara (Asia), bertan baitaude munduko olaturik onenak. Hurrengo geltokia Australiako desertua (Ozeania) izango da; handik, Txilera (Amerika). Amaitzeko, etxera etorriko naiz, Mundakara (Europa). Bidaia luzatu gura nuke Irlandara joateko.

—Nola aukeratu dituzu olatuak?

—Mundu mailan hamar olatu ezagun daude. Beste batzuk ere badira, baina horietara heltzea zaila da eta horregatik ez dira hain ezagunak. Nire ideia, 70.

hamarkadako surflariak egin zutenagaz jarraitzea da; munduan zehar ibili ziren, mundu mailako klaseak bilatzen.

—Zergatik dira bereziak olatu horiek?

—Zaila da hori azaltzea. Esan daiteke 8000koak direna goi mailako mendizaleentzat, direla olatu horiek surflarientzat. Badaude handiak diren beste batzuk, baina hauek onenak dira, tuboen potentzialagatik.

—Zer egingo duzu herri bakoitzean?

—Namibiari buruz zerbait jakiteko liburuxka daukat, baina ezer gutxi dakit. 4X4 ibilgailua alokatu dut eta olatua

«Surfa bizitzeko modua da; naturarekiko harreman berezia sortzen du»

bilatzera joango naiz. Interesgarriena bidean aurkitzen dudana izango da. Indonesian argazkilari bategaz lotu naiz eta Australian autokarabana alokatuko dut lagun bategaz desertua zeharkatzeko. Leku bakoitzaren oinarrizko ezagupenak ditut.

—Eta bukatzeko, etxera...

—Mundu mailan ezaguna da Mundaka. Nire herriari egindako omenaldia da; bertan bizi izan ditut momenturik onenak lagunakaz eta familiagaz.

—Zer ikusi ahal izango dugu web-ean?

—Argazki eta bideo kamara eroango ditut eta bidaiaren barri ematen saiatuko naiz, ahal dudana heinean.

—Artea eta surfa lotu gura dituzu?

—Gurean surfa txapelketa bezala ikusten da. Nik bizitzeko modua dela transmititu gura dut, naturarekiko harreman berezia sortzen duena; Kaliforniatik datorren korronea da. ○

Informazio gehiago:
www.kepa-acero.com

Badatoz sanisidroak!

Hilaren 13an hasiko dira; zapatuan baserri-tar jantzita joateko deia luzatu dute



Hamaiketako emango dute aurten ere Kooperatibako lagunak

Urteko lehenengoak dira Getxon sanisidro jaiak. Aurten, maiatzaren 13a eta 16a bitartean, ohitura eta jai giroa nahastuko dira eliza inguruan.

Eguenean, pregoiaren irakurketagaz eta txupinagaz emango zaie hasiera ospakizunei. Txan Magoa eta txokolatada egongo dira ondoren, Probalekuko parkingean. 20:00etan, *Getxo, akordaten naz* dokumentalaren II. zatia estreinatuko da Elizan. Barikuan, Mus Txapelketa eta haurrentzako animazioa izango dira arrastiko ekintza nagusiak. Gauean, Eztanda, Kaleko Orroak, Garrasika eta Esne Beltza taldeek joko dute.

Zapatua egun handia izango da. Ohiturari jarraituz, meza, aureskua eta Kooperatibak emandako luntxa izango da 12:00etan eliza inguruan. Ondoren buruhandiek txistulariakaz batera kalejira egingo dute auzoan zehar. 15:00etan, herri bazkaria probalekuko parkingean; horretara, eta egunean zehar egiten diren beste ekintzetara, baserri-tar jantzita joateko deia luzatu dute Jai Batzordeko lagunak. Arrastian, esku pilota txapelketa, idi probak eta erromeria egongo dira. Domekan, azokak, tiratxina erakusketak, herri-kirolek eta erromeriak emango diete amaiera jaiei. ○

FILATELIA ERAKUSKETA 3TIK 8RA VILLAMONTEN

Getxoko Filatelia Elkarteak urteko erakusketa egingo du hilaren 3tik 8ra Villamonteko Kultur Etxean. Aurten, Jose Antonio Agirre omenduko dute, bere heriotzaren 50. urteurrena dela eta. Horretarako, Agirrerren bizitzaren hainbat elementu batzen dituen gutun-azal filatelikoa eta bere aurpegiaren irudia duen zigilu-marka diseinatu dituzte. Horiek, elkartearen eskuratu ahal izango dira hilaren 3an eta 4an arrastiko 17:00etatik 21:00etara. Villamonteko erakusketan, Euskal Herriagaz zerikusia duten gaietan oinarritutako material filatelikoa ikusiko da; goizez eta arratsaldean egongo da zabalik. Elkartetik deialdia zabaldu dute bildumazaleak Elkarteagaz harremanetan jar daitezten; Villamonteko Kultur Etxean biltzen dira zapaturo goizeko 11:00etatik aurrera.

IÑAKI GONZALOREN AZKEN LIBURUA KALEAN

Txalaparta argitaletxeak argitaratu barri du Iñaki Gonzalo *Kitxu* romotarraren azken eleberria: *Como no quererte, Alba*. Gonzalok, Begoña Garcia Arandigoyen *Alba* Gareseko (Nafarroa) mediku gaztearen istorioa kontatzen du, Salvadorreko militarren eskuetan heriotza aurkitu zuena, bertsio ofizialak inoiz onartu ez duen arren. *Alba* FMLNko kidea izan zen eta bizitzaren parte handia Salvadorren eman zuen. Azken hau, *Kitxuren* bosgarren lana da; guztiak espetxean idatzi ditu preso baitago 1994tik.

ALGORTAKO BERTSO ESKOLA BEHARGIN BILA

Eskolaren beharra kudeatzeko langile bila dabil ALBE. Kudeaketa eta administrazio arloko ezagutzaz gain, informatika ezagutza, euskara menperatzea, gida-baimena izatea eta harremanetarako gaitasuna izatea eskatuko da. Bertsolaritzaren harreman zuzena izatea ere baloratuko dute. Curriculum albegetxo@gmail.com helbidera bidali behar dira hilaren 10a baino lehen.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
TÉ. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Oskar Garcia > Leioa Big Band-eko zuzendaria

“Musika mota hau, jazz estilokoa, oso dibertigarria da, bai guretzat, bai ikus-entzuleentzat”

Orain hiru urte sortu zen Leioa Big Band, herriko musika eskolan, eta dagoeneko, disko batean parte hartu dute; Doctor Deseo taldearen azken laneko *Lagrimas de placer* kantuari soinua jarri diote. Oskar Garciaik zuzentzen du jazz orkestra.



Laster aterako du bere abesti bik osatutako diskoa Leioa Big Bandek

—Nolatan parte hartu duzue Doctor Deseo taldearen diskoan?

—Big Bandeko partaide bik Doctor Deseogaz jotzen zuten taldea hasi zenean, duela hamar urtetik gora, Josu Monge bateria eta Josu Belmonte gitarrak. Iaz Francis taldeko abeslaria etorri zen entsegu bat entzutea. Gure soinua gustatu eta hurrengo diskoan parte hartzeko proposatu zigun. Aurten dei egin digu, proposamena ez zeukan ahaztuta, eta *Lagrimas de placer* kantua ekarri zidan. Ez zen gure estilokoa, baina moldaketak egin ondoren, aurkeztu genion. Gustuko izan zuen eta Muxikara joan ginen grabatzera, haurrak eta guzti. Esperientzia oso ona izan da. Estudio batean jotzea oso desberdina da, kaskoak jantzi eta metronomoari jarraitu behar zaio, denboran oso zehatz jo behar da.

—Umeak aipatu dituzu, haurretatik ia erretiratueta daukazuelako, ezta?

—Hogei kide gara, 12 urtetik 60ra: 18 musikari, abeslaria eta zuzendaria. Pianoa, bateria, gitarra eta baxua izan ezik, beste tresnak airezkoak dira. Denek ikasten dute musika klasikoa eskolan. Baina Big Bandek jazz egiten du: *swing*, *bosa-nova*... Erritmo handikoa.

—Jotzeko, klasean egiten dutena baino politagoa agian?

—Eta batez ere oso entretenigarria.

—Baina azken kolaborazioaz gain,

kontzertuak ere emango dituzue?

—Estudioko lehen esperientzia izan da, baina laster egingo dugu maketa gure kanta bigaz, baita webgunea ere, kontratuzia begira. Kontzertu batzuk ere egingo ditugu, bai Leioan, bai Bilbon. Euskalduna Jauregian eta La Haceria aretoan ere jo izan dugu. Oso ondo doakigu. Izan ere, musika mota hau oso dibertigarria da, bai guretzat, bai ikus-entzuleentzat; harrapatzen zaitu. ○

Euskal Jaiari eutsiz... Lamiakon lehengoaren lepotik, aurten ere ospatuko dute Euskal Jaia, maiatzaren 8an



Metro geltokiaren ondoko aparkalekuan eta eskolan egingo dituzte ekimenak

Laugarren Euskal Jaia egingo dute aurten Lamiakon: *Lehengoaren lepotik, Euskal Jaiari eutsiz!* dio leloak. Maiatzaren 8a aukeratu dute horretarako Kultura Topaguneko lagunek, zapatua. Auzoan egun osoan jai giroaz gozatu dutela ziurtatu dute, eta egitarau oparoa prestatzen dabilta helburua lortzeko.

Jaiari hasiera emango diote 12:00etan, umeentzako jolasakaz eta tailerrakaz; tala zein txalaparta tailerrak antolatuta dituzte. Nagusiagoak ordu bete beranduago batuko zaizkie auzoko txikiak, kalejiran. Trikitilariak girotuko dute Lamiako 13:00etatik aurrera, panderaren eta soinua laguntzagaz.

Trago batzuk hartuta, bazkaritan bilduko dira auzotarrak 15:00etan, eskolan. Ondoren eta urtero legez, irrintzi txapelketa hasiko da; arrakasta itzela dauka lehiaketak, ezta irindarituak baitituzte Lamiakon. Aurten ere saria emango dute: lagun batentzako spa zirkuitua.

Dantza alardea, barriz, arrastian egingo du Txikiak Txiki dantza taldeak, 18:30ean.

Eta musikaren tartea iritsiko da berehala, 19:30ean. Poteo musikatu hasiko da orduan, eta 21:00etan, erromeria, metro geltokiaren ondoko aparkalekuan. Eta hortik aurrera... festak jarrai dezala! ○

SAHARAR UMEEN BISITA UDA HONETAN ERE

Saharatik iritsiko dira umeak uda Leioan igarotzera, beste behin ere. FATH Leioako Sahararen Aldeko Elkarteak antolatzen du urtero ekimena, eta Udalak diruz laguntzen du. Hainbat familiak umeak hartzen dituzte etxean, uda igarotzeko; Saharako bizimodu latzaz atseden eman gura diete umei. Izan ere, Aljeriako basamortuan bizi dira kanpamenduetan, janari eta botika gabezia handia daukate eta udan 50 graduko tenperaturak paira ditzakete.

Interesa daukanarentzako harrera telefonoa: 656 735 687

AMAIURRERA KURKUDI KULTUR TALDEAGAZ

Maiatzaren 15ean Amaiurrera txangoa prestatu du Kurkudi Kultur Taldeak, Nafarroako Erresumaren konkistaren 500 urte betetzeko gutxi falta dela, euskal historia apur bat hobeto ezagutzeko asmoz. Ildo berean, egun bi lehenago, maiatzaren 13an, hitzaldia eskainiko du Floren Aozek, orduko gakoetatik abiatuta, gauro egoera azaltzeko. Hitzaldiaren tokia eta ordua zehazteke dago.

AUZOKIDE ELKARTEEK UDALARI PROTESTA

Lamiako-Txopoeta eta Artatzaganeko azokideen elkarteetako ordezkariek Udalaren hitzak eta hainbat jarrera salatu dituzte. Lamiako eta Txopoetako elkarteak salatu du, araztegiaren aurre-proiektuari buruzko ikerketaren harira, Udalak auzokideen hitzak “manipulatu” zituela martxoaren 2ko bileraren ondoren. Gainera, Udal-Planaren Aholku Batzordean auzokideek parte hartzeko Udalak “borondate gutxi” duela deritzo elkarteak. Azkenik, Artatzaganeko auzokideak batera, salatu du martxoaren 30eko Aholku Batzordean ez zela aho batez erabaki 14-C eremuko planean aldaketak egitea Osoko Bilkurara eroatea. Izan ere, “ez zen bozketarik egin”. Udalar aurkeztu diote protesta-testua.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

THE BEST
ONLINE DIGITAL ENVIRONMENT

ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirutab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BASTARTEA
URDULIZ
Teléfono: 948 761 128

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OSABIDE HORITZ KLINIKAK
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Odontologia
- Periodontia
- PADI

Bidehara 27. behe eskalera
ALGORTA
94 430 75 96

[erandio]

Lauroko ikasleak > *Lego League World Festival* lehiaketako partaideak

“Getxoko garraioari buruzko lanagaz lortu dugu Atlantako robotika lehiaketan parte hartzea”

Atlantatik (AEB) etorri barri hartu gintuzten Lauro ikastolako 4. DBHko dibertsifikazio gelako ikasleek. Lego League World Festival sariketan lehiatu ziren, munduko beste 80 taldeagaz. Getxoko garraioari buruzko lanagaz lortu zuten hara joateko sailkatzea.

—Zer da Lego League World Festival?
—Robotika lehiaketa da, 10 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat. Urtero gai desberdina aukeratzen dute eta hari buruzko egitasmo zientifikoa gauzatu behar da. Aurtengo gaia garraio eraginkorra izan da. Guk Getxoko garraioari buruzko lana osatu dugu. Arazoak identifikatu eta konponbideak proposatu ditugu, herritarrei egin inkestak aintzat hartuta. Ondorioetako bat izan zen bidegorri eta horien arteko lotura gehiago behar direla Getxon. Bidegorri barriak egiteaz gain, bizikleta elektrikoak bultzatzea proposatu dugu aldapan arazoari urtenbidea emateko: bateria eguzki-plaken bitartez kargatzen da, energia barriztagarria erabiliz (aldapan behera kargatu eta gorako bidean lagunduko du).
—Nolatan aukeratu zenuten Getxo?
—Irailean Getxophoto jaialdia ikustera joan ginen eta egitasmo bi sortu ziren



laurosonik-blogspot.com gunean jarri dituzte ikusgai lanari buruzko informazioa eta bideoak

bisitatik; plastika, gaztelania eta literaturari buruzkoa bata; teknologia arlokoa bestea, gurea.
—Eta zer dela eta parte hartu duzue?
—Innobasque enpresak proposatu zigun. EAE mailako lehiaketan sari bat eskuratu genuen “*edukitako jarrera onagatik eta taldearen kohesio egokiarengatik*”, ondorioz, Atlantara gonbidatu gintuzten. Bidaiarako eta robota egiteko finantzazioa gure kabuz bilatu behar izan genuen; hainbat enpresak eta

Getxoko Udalak lagundu digute.

—Zuek sortu robotagaz ere probak egin behar izan dituzue sariketan, ezta?
—Bai, kotxe txiki bat da. Robotak minutu bi eta erdian burutu behar zuen ibilbidea, bidean hainbat proba gauzatu. Erdibideko postua lortu dugu.
—Esperientzia polita?
—Ikaragarria, mundu osoko jendea ezagutu eta kulturak partekatu ditugu; guk txalaparta eroan dugu, esaterako. Oso ondo pasa dugu. ○

Hiru urte ametsak eraikiz

Gazte Asanbladak **maiatzaren 8an** ospatuko du hirugarren urtebetetzea, **Gazte Egunean**



lazko Gazte Eguneko bazkaria

Dagoeneko igaro dira hiru urte Gazte Asanblada sortu zutenetik eta merezi bezala ospatuko dute, Gazte Egunagaz. Maiatzaren 8an izango da, zapatua.

Txupina jaurtiko dute 11:30ean eta festa piztuko da. Koadrilen arteko olinpiaden finala jokatuko dute segituan, giroa berotzen hasteko. Bitartean, umeek ere izango dute zer egin; ipuin kontalaria arituko da eta tailerretan parte hartu ahalko dute.

Gazte bazkarian elkartuko dira 14:30ean, eta bazkalondoan lorik ez hartzeko, herriko koadrilek sorpresa prestatu dute. Berehala banatuko dituzte olinpiadetako sariak, poteoa hasi

aurretik. Hegohaize taldeak girotuko du. Eta musikagaz jarraitzeko, kontzertua antolatu dute gauerako; Sin rumba fija taldeak joko du, eta ondoren, erromeria egongo da. Gero... auskalo!

Gazte Asanblada duela hiru urte sortu zuten, “*herrian gazteon arteko elkarlan falta eta pasibotasunari aurre egiteko*”. Hainbat ekimen, jai eta aldarrikapen egin dute, eta era berean, “*hain minduta dagoen euskarari leku ematen saiatzen*” dira. Baina erandioztar gazteek topaleku fisiko baten beharra sumatzen dute, argi dute “*Erandiok gaztetxea behar duela*”. Gazteen “bizitasuna, sormena eta indarra transmititu gura diote herriari. ○

HERRIKO TALDEAK ASTRABUDUKO JAIETAN

Erandioko musika taldeei tartea egingo diete Astrabuduko jaietan. Jai Batzordea talde bila dabil, beraz, bertan jo gura duenak, eurek harremanetan jarri behar du. Zehazki, kantua helarazi behar du astrabujaiak@gmail.com helbide elektronikora mezua bidaliz edota euren lokalera eroanez (auzoko Jose Andres Mendiguren plazan dago). Eguenetan batzen dira, 19:30ean.

LARRUN ETA SARARA JOATEKO IZEN-EMATEA

Hil honen 18ra arte izena eman daiteke Larrun eta Sararako urteeran parte hartzeko. Erandio Bidaiak agentziara jo behar da, San Agustin plazara. Erandion erroldatuta dagoenak 30 euro ordaindu behar du, eta erroldatuta ez dagoenak, 65 euro. Baina herritarrek daukate lehentasuna. Toki baino eskari gehiago egotekotan, zozketa egingo dute.

NEURRIAK HEZEGUNEA BERRESKURATZEKO

Gasteizko Legebiltzarreko Ingurugiro Komisioak Astrabuduko “*hezegunea berreskuratze eta uholdeak ekiditeko neurriak*” hartzeko proposatu dio Eusko Jaurlaritzari. Ardura daukaten gainontzeko erakundeak eta URA agentziagaz batera, “*berehala*” ekiteko eskatu dio. Udondo errekararen eta hezegunearen degradazioak eragin uholdeak eta segurtasun, osasun zein bizitza-kaliterako arriskuak gutxitzea da helburua.

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA 15EAN

Kontzertua eskainiko du BOS Bilbao Orkestra Sinfonikoak Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean, maiatzaren 15ean, 19:30ean. Sarrerak hamar egun lehenago eskuratu ahalko dira 2 euroren truke. Castelnuovo Tedesco, Assad eta Schuberten obrak joko ditu.

Torreña 2
48990 ALGORITA
94 491 12 71
irstielgorte@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Zurikaldai

JOHIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURIVENDI
Neguntza Etorbidea 2 Anguarenen etorb. 4B
T. 491 14 67 (Sanera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEDURI 48990 GETXO

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tl. 941 430 92 43 / 607 802 917 • garaizar@barrikuntzak.com
Erlaia kalea 1 • ALGORITA

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitzaarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

GORPUTZA BIZKOR ETA MINGAINA SASOIAN

Kirolean euskara sustatzeko kanpaina iritsi da Sopelara, kirolean ere "gaztelaniaren alde egin baitu balantzak azken urteotan". Eskola-kirolean parte hartzen duten umeei eta gazteei zuzendu diete kanpaina batez ere, gurasoak ahaztu barik. Gainera, udal kirol-azpiegituretako erabiltzaileei eta herriko kirol-elkarteei zuzenduko diete egitasmoa, hari buruzko informazioa beren esku jarritz. Euskarri bitan zabalduko dute, paperean eta euskarri elektronikoa. Gura duenak eskura dezake www.azkuefundazioa.org gunean.

HERRI IBILALDIAK 25 URTE BETEKO DU HILAREN 16AN

Urko Mendi Taldearen Herri Ibilaldiaren zilarrezko ezteiak dira aurten, egitarau berezia prestatu dute maiatzaren 14tik 16ra. Barikuan, 14an, Juanjo San Sebastian mendizaleak hitzaldia eskainiko du 19:30ean, Kurtzio Kultur Etxean. Zapatuan, ostera, umeak izango dira protagonista. Beraiantzako jolasak egongo dira 18:30etik 20:30era, Udaletxe plazan, puzgarri eta ludotekagaz. Gainera, txokolatea banatuko dute "Ku-Klux" fanfarrearen musikaren laguntzagaz. Ibilaldia domekan izango da. Akilino Arriola plazatik abiatuko dira nagusiak 09:00etan, eta adinez txikikoak 11:00etan. Mendizaleak heldu osten banatuko dituzte sariak, Barinatxe Txistu taldeak eta Trilileku Trikitixak girotuta.

SOPELAKO MUSIKA TALDEAK JAIETAN

Herriko musika taldeek Sopelako eta Larra-basterrako jaietan jotzeko dei egin du Gazte Bulegoak. Deialdira aurkezten diren taldeen artean zozketa egin eta irabazleek San Pedro edo Karmen jaietan joko dute. Parte hartzeko taldeko kideetako batek, gutxienez, Sopelakoa izan behar du. Taldearen biografia, CD bat eta harremanetarako telefono zenbakia aurkeztu beharko dute taldeek Gazte Bulegoan, maiatzaren 21a baino lehen.

Koadrilok... prest!

Maiatzaren 15ean izango da **Koadrilen Eguna**: ibilaldia, bazkaria, poteoa... giro aparta!



Bazkaritarako txartelak eros daitezke Plaza Beltza kulturgunean

Iazko arrakasta errepikatzea espero dute herriko koadrilek, beren egunaren ospakizunean; halaxe esan digu Gazte Asanblada sopeloztarrak. Maiatzaren 15ean egingo dute aurtengo Koadrilen Eguna.

Goizean hasiko dira ekimenak, ibilaldiagaz; kostatik egingo dute oraingoan. Ondoren, eta indarrak berreskuratzeko, pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

Eguerdiaren iritsiko da bazkaria, eta joan gura duenak, Plaza Beltza kulturgunean eros dezake txartela. Eta bazkalondoan hasiko dira komeriak, koadri-

len arteko jolasakaz. Arrastiak aurrera egin ahala, poteoari eta kontzertuari ekingo diote. Aurten sorpresaren bat edo beste iragarri dute, eta kostako ibilaldia izan ezik, beste ekitaldi guztiak Udaletxe plazan izango dira.

Koadrilen Eguna 2006an ospatu zuen lehenengoz Gazte Asanbladak, "herrian koadrila asko egon arren, euren artean harremanik ez zutela" konturatu zirelako, "batez ere bakoitza bere lonjan sartuta, elkar ezagutzeko gunerik ez" zeukatelako. Egoera hura aldatzen laguntzeko sortu zuten Koadrilen Eguna. ○

Ana Gonzalez > bidaiaria

"Bidaiatzea beti da interesgarria, bestelako kulturak ezagutzea gustuko dugu"



Sopelan eta unibertsitatean erakutsiko du laster Etiopiari buruzko diaporama

Bidaiatzea gustuko du Ana Gonzalezek eta bidaia horien barri erakusten du ondoren, diaporamen bitartez. Horietako azkena egin zuen orain aste batzuk, Sopelan bertan.

—Zer bidaia erakutsi duzu Sopelan?

—Orain dela bost urteko bidaia, bizikletaz joan ginen Ulan Batorretik Pekinera, 1.400 kilometro; Gobiko basamortua zeharkatu genuen.

—Nolatan diaporamak egiten hasi?

—Askotan joan naiz besteen diaporamak ikustera, gustuko ditut. Beraz, bidaietako lagunok, geuk ere egitea pentsatu genuen. Bidaiako argazkiak, bideoak eta informazioa jasotzen dugu diaporametan. Bidaietarako gure eskarmentua beste pertsonakaz konpartitzen dugu. Etiopiari buruzkoa erakutsiko dugu, hemendik gutxira, unibertsitatean eta Sopelan. Himalayan ere ibili gara, eta beste hainbat tokitan.

—Kirolagaz lotzen omen dituzue bidaioak.

—Bai, bizikletaz egiten ditugu, edo mendia daukaten tokietara joan ohi gara. Mendizaleak gara, eta gainera, bidaiatzea beti da interesgarria, bestelako kulturak ezagutzea gustuko dugu; beste herrialdeetara joatea da horretarako modurik onena. Hogei urtetik gora daroat bidaia-tzen, oso gustura egiten dut. Kontinente guztietan ibili naiz, herrialde askotan. Gainera, *Pyrenaica* aldizkarirako artikulak idazten ditut.

«Laster, Etiopiari buruzko diaporama erakutsiko dugu Sopelan»

—Lagunakaz joan ohi zara?

—Pie azul taldean nago, mendira irteerak antolatzen ditugu. Bertako lagunak animatzen dira bidaia handiak egitera, batzuk edo besteak, beti norbait prest.

—Udarako zer daukazu esku artean?

—Japoniara goaz. *Japoniako Alpeak* bezala ezagunak direnak ere bisitatuko ditugu, hurrengo diaporaman ikusi ahalko duzue. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta banikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Iñigo Juaristi > Athleticen emakumeen taldeen koordinatzailea eta entrenatzaile ohia

“Agian Iñigo koordinatzaileak bota du Iñigo entrenatzailea, lagunartean esaten dudanez...”

Athletic Futbol Clubeko emakumeen lehen taldea trebatu du ia zazpi urtez Iñigo Juaristi berangoztarrak, orain gutxi arte, eta emakumeen taldeak koordinatu ditu. Aurrerantzean bigarren lan horretan jarriko du arreta osoa.



“Gainontzeko alderdietan moduan, emakumeek harresiak eraitsi beharko dituzte oraindik”

—Urteetan entrenatu dituzu futboleko emakumeak, azkenak Athleticen.

—Zortzi denboraldi dira Bilboko Athleticen emakumeen taldea sortu zutenetik, horietatik zazpitan egon naiz. Baina Bizkerren hasi nintzen emakumeak futboleko prestatzen, orain 21 urte.

—Zuk erabaki duzu entrenatzeari uztea, azken emaitzak onak ez zirelako?

—Ez zehazki horregatik. Dinamika oso baten parte da hori. Clubaren baitan emakumeen futbola koordinatzeko ardura ere badaukat, agian entrenatzea baino lan garrantzitsuagoa da. Trebaketa bakarrik egin izan banu, agian arreta handiagoa jar niezaiokeen oraindik, baina dinamikan eragina daukanean, agian hobeto da gogo arlo batean zehaztea. Lagunen artean esaten dudanez, Iñigo koordinatzaileak bota du Iñigo entrenatzailea. Aldaketa behar zela samatu, eta aukera onena hau zela.

—Emaitza onenak lortu dituzue, esperientzia positiboa izango zen...

—Bai, noski. Aurten ere hirugarren postua lortuko dute. Une oso onak bizi izan ditugu, ez emaitza onei dagokienez soilik, hainbat helburu lortu dugu eta hori garrantzitsua da, emakumeen taldea sortuz harresiak apurtzen hasi da cluba.

—Eta merezitako lekua aitortu zaie?

—Clubak apustu garrantzitsua egin du emakumeen futbolagaz, baina azkenean

beti datoz alderatzeak. Gizonen taldeak urte mordo daroa, emakumeek bilakera azkarrago egin arren. Baina ez da futbol kontua soilik, emakumeen kirolarena baizik. Bizitzaren gainontzeko alderdietan moduan, harresiak eraitsi beharko ditu oraindik. Halere, eskaria gero eta handiagoa da, eta normalagoa da emakumeak kirolean ikustea. Espero dezagun pixkanaka egoera normalizatzea. ○

Iker Galin eta Cormac Mc Donnell > Mongol Rally

Plentziatik Mongoliara, kilometroz kilometro elkartasuna ereiten



I. Galin eta C. Mc Donnell rallyan erabiliko duten ibilgailuagaz

Abenturazaleak dira I. Galin eta C. Mc Donnell. Uztailaren 22an Plentziako Astillero plazatik abiatuko dira Mongoliarako (Asia) bidean; hara heldu aurretik 14 herrialde zeharkatuko dituzte. *Mongol Rally* elkartasun lasterketan parte hartuko dute; abiatu aurretik, diru eta material ahalik eta gehien bildu gura dute bertan banatzeko.

—Zergatik erabaki zenuten Mongol Rally-an parte hartzea?

—(I.G.) Orain dela sei urte rallyrako bidean zeuden auto bi ikusi nituen errepidean; ideiak erakarri ninduen eta informazioa biltzen hasi nintzen. Azken urte bian prestatu dut.

—Rally zaleak zarete?

—Ez. Mundua ezagutu eta ahaztutako herria lagundu gura dugu.

—Nolakoa izango da bidaia?

—Plentziatik abiatuko gara, baina Bar-

tzelonan egingo dugu urteera ofiziala. 14 herrialde zeharkatuko ditugu hil bian: Alemania, Turkmenistan, Rusia e.a. Mongoliara heltzean kotxea eta eroango dugun dirua eta materiala emango dugu; horri guztiari erabilpen egokia ematen zaiola bermatu gura dugu, gure begiak ikusi. Bidea mapa eta iparrorratzagaz egingo dugu.

«Eroandako dirua eta materiala ondo erabiliko dela bermatu gura dugu»

—Zelan finantzatu duzue rallya?

—Bakoitzak ahal izan duenagaz lagundu gaitu: kamisetak, dirua, kotxea e.a. Taberna, jatetxe eta Gorliz eta Plentziako Udalek lagundu gaituzte. Oraindik 8000 euro behar ditugu; gugaz harremanetan jartzeko web-ean aurkituko dute informazioa. ○

www.marmitakoteam.com

tanta.
estetika



BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saiok)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf. 645 739 780

Zure beharrek araberako erudutegia

Uribefm
fm 107.8
Gorliz Irratia



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
KATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86



GORLIZKO UDALEKU ETA JAIETAN PARTE HARTZEA

Uda heltzean dago eta udarako ekintzak antolatzen hasi behar da. Udalak hilaren 3an zabaldu zuen udalekuean izena emateko epea. 3-5 urteko umeentzat 7a arte egongo da zabalik eta gainontzekoentzat 20a arte. Horrez gain, Santiago jaietan (uztailaren 23tik 26ra) karroza aurkezteko edo gainean joateko eskaerak egin ahal izango dira 10a arte. Herriko musika taldeek 3tik 11ra izango dute jaietan jo ahal izateko eskaera egiteko aukera. Azkenik eskulangintza eta nekazal azoketarako eskabideak egiteko, 3tik 28ra egongo da zabalik epea.

TXAPEL REGGAE-RAKO KAMISETA DISEINA EZAZU

Maiatzaren 15a arte aukera dago Armintza Txapel Reggae jaialdiko kamisetaren diseinua egiteko lehiaketan parte hartzeko. Freehand edo ilustrator programakaz egin behar dira eta armintzajb@gmail.com helbidera bidali. Irabazlearen izena ekainaren 1ean argitaratuko da Lemoizko Udalaren web-ean.

JARDUERETARAKO IZENEMATEA URDULIZEN

Urdulizko udaleku irekietan parte hartu gura dutenak, maiatzaren 3tik 8ra Urdulizko Kultur Etxean eman beharko du izena. 3-5 urte bitartekoentzat euskarazko ludoteka antolatu dute; 6-12 urte bitartekoentzat aldiz, multiabentura udaleku irekiak. Bakoitzean 40 leku egongo dira.

URDULIZ

Palestinaren alderik bortitzena argazkietan 7a arte



Argazkiak batera mapak eta palestinar poeten zitak egongo dira erakusketan

Maiatzaren 7a arte palestinar herriak bizi duen errealitate bortitza islatzen duen erakusketa egongo da ikusgai Urdulizko Kultur Etxean. Biladi Bakea eta Duintasuna Elkarrekin osatu du erakusketa; Biladi, 2002. urtetik dabil beharrean Palestinako lurralde okupatuetan. 2003an, Biladi Palestina Kultur Elkarrekin sortu zuten palestinarren egoerarekiko sentsibilizazioa lantzeko. Helburu horretan laguntzeko, hau da Bizkaiko gazteak sentsibilizatu eta kontzientziatzea, sortu

barri duten egitasmo baten barruan kokatuta dago erakusketa. Osagarri moduan, hitzaldia eman zuten apirilaren 30ean.

Testuak, mapak, argazkiak eta palestinar poeten zitak biltzen dituzte erakusketak 14 panelek. Azalpenak, 17 ataletan banatuta daude eta Israelgo historia, emakume palestinarren egoera, lotsaren harresia eta errefuxiatuen egoera lantzen dituzte, besteak beste.○

www.biladipalestina.com

Mai. 3 - Mai. 17

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Aka, Edurne Martinezen pintura erakusketa.** Josu Murueta Kultur Etxean. Maiatzaren 7ra arte.
► **Astrabuduko Fotoclubeko argazki erakusketa.** Algortako erakustaretoan. Maiatzaren 14tik aurrera.

GETXO

► **Filatelia elkarte.** Villamonteko Kultur Etxean. Maiatzaren 8ra arte.

LEIOA

► **Mingote.** Kultur Leioan. Maiatzaren 7tik aurrera. Doan.

MUSIKA

LEIOA

► **Ganbera kontzertuak.** Kultur Leioa. Maiatzaren 5ean eta 6an, 20:30ean. 3 euro.

PLENTZIA

► **Iraunkor abesbatza.** Elizan. Maiatzaren 8an, 20:00etan.

ERANDIO

► **Bilboko Orkestra Sinfonikoa.** Josu Murueta Kultur Etxean. Maiatzaren 15ean, 19:30ean. 2 euro.
► **Dantzaldiak orkestragaz.** Irailaren 23a plazan. Maiatzaren 16an, 17:30ean.

ZINEMA

LEIOA

► **Hispano Amerikar zikloa.** Kultur Leioan. Maiatzaren 4an eta 11n, 20:00etan. 2 euro.



Jaio.Musika.Hil lanaren sortzen prozesua jasotzen du pelikula

► Dokumentala

Zertarako amestu filma Sopelan

Lekunberriko Berri Txarrak musika taldeak *Zertarako amestu* dokumentala aurkeztuko du Sopelan, maiatzaren 6an. Taldekideek parte hartuko dute aurkezpenean, eta emanaldiagaz batera, beraien azalpenak eta anekdotak entzuteko parada izango da. *Zertarako amestu* musika dokumentala da, zehazki, rock dokumentala. Taldearen historiako 25 hilabeterik "bizienak" jasotzen ditu; hots, *Jaio.Musika.Hil* diskoaren sortze-prozesua, haren grabaketa eta ondorengo bira erraldoia hiru kontinentetan zehar (Amerika, Asia eta Europa). Musikariaren gogo-aldartean sakontzen du filmak, eta agian, ez da Berri Txarrak taldeari buruzko pelikula soilik.

• **Non:** Kurtzio Kultur Etxean • **Noiz:** Maiatzak 6, eguena, 19:00etan

GETXO

► **Zinema Paradiso: Ahate pasa laburra eta Aleksandra film luzea.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 7an, 22:00etan. 2,90 euro.

GORLIZ

► **Lupe Lekuona ipuin kontalaria.** Iberrebarri ikastetxean. Maiatzaren 15ean, 18:30ean.

SOPELANA

► **Pirritx, Porrotx eta Marimotots: Irrien lagunak.** Urko Kiroldegian, maiatzaren 22an, 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak salmantan hilaren 10etik 13ra (sopeloztarrek) eta 14tik 17ra (gainontzekoek). Nagusiek 7 euro eta umeek 2 euro.

ANTZERKIA

GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Maiatzaren 14an, 19:00etan.

BESTEAK

SOPELANA

► **Eguzki taldearen ekimenen aurkezpenean.** Plaza Beltza kulturgunean. Maiatzaren 7an, 19:00etan.

LEMOIZ

► **Euskarazko udalekuean izenematea.** Armintzako Kultur Etxean. Maiatzaren 8ra arte.

ERANDIO

► **VII. Trial 4x4.** Altzagako kiroldegiaren ondoan. Maiatzaren 8an eta 9an. Doan.
► **Gazte Eguna.** Altzagan, maiatzaren 8an, zapatua.
► **Euskal Jaia.** Maiatzaren 9an.

GETXO

► **Dantza eguna: Getxoko dantza eskolak.** Areetako Geltokia plazan. Maiatzaren 8an, 11:30ean.
► **Bigarren eskuko liburuen azoka solidarioa.** Algortako Geltokia plazan. Maiatzaren 14tik 16ra.

GORLIZ

► **Euskaraz olgetan, 1 eta 10 urte bitartekoentzat.** Iberrebarri ikastetxean. Maiatzaren 8an eta 15ean, 12:00etan.
► **Automakillaje ikastaroa.** Kultur Etxean. Maiatzaren 14an, 11:30ean.

LEIOA

► **The sound of magic magia ikuskizuna.** Kultur Leioan. Maiatzaren 8an, 19:00etan. 10 euro.
► **Euskal Jaia.** Lamiakon. Maiatzaren 8an, zapatua. Egun osoan zehar.

BERANGO

► **Gazteleku.** Santa Ana Kultur Etxean. Barikutik domekara, 16:00etatik 20:00etara.
► **Umeentzako ludoteka.** Berangoeta Kultur Etxean. Astelehenerik barikura, arratsaldez.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Barri fresko-freskoak

Eskualdetik paseotxo eman du argazkilariak, azken orduko albiste bila. Adituek diotenez, teknologia barrien eraginez, geroz eta egunkari gutxiago erosten da munduan. Hala ere, kalean ikus daitezke oraindino egunkariz zein txutxu-mutxu aldizkariz gainezka dauden kioskoak. Barriak bardinak diren arren, egunkaria patxadaz hartu, kafea eta croissantak lagunduta irakurtzeak... ez dauka preziorik!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Jauntxoa

zaldian, Getxon

Gauza jakina da Getxon dirudunak zenbat-gura daudela, eta irudian ikus daitekeenez, ez da oraingo kontua. Antza, XIX. mende akabuko edo XX. hasierako argazkia da. Umea ikus daiteke zaldian, harro baino harroago. Gurasoek oparituko zioten, lagun eta auzokide guztien inbiditarako; guztiak daude dotore jantzita, baina hurren aurpegiari erreparatu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Herriko jauntxoa ematen du, zaldian igota.

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Hilea da Doctor Deseo talde bilbotarrak 12. diskoa, *Deseo: cartografia imposible* (Baga-Biga), aurkeztu zuenetik. Taldearen izena zuen diskoagaz eman ziren ezagutzera 1987an, eta gaur egun jatorrizko taldekietatik bik baino ez dute jarraitzen, Josik (baxua) eta Francisek (ahotsa), eta eurekaz boskotea osatzen dute Raul (teklatuak), Txanpi (bateria) eta Torok (gitarra), taldean sartzen azkenekoak, dagoeneko ia 10 urte daramanak. Desira besarkatu eta “hankarkatu” dute 23 urteotan, eta beti bezain probokatzaille, zirikatzaile, lotsabako... jarraitzen dute. 40 kontzertu inguru emateko asmoa dute, azkena, beti legez, urtarilaren 5ean, gero “ezkutuko” sortze-urteari barrero heltzeko. Informazioa: www.doctordeseo.com

Francis Diez

plazer bizi-biziz

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Azaldu duzuenek, Desiraren ganean eta bere mugabako lurraldeko lau puntu kardinaletik abiatuta sortu dituzue aurkeztu barri duzuen diskoak 10 kantak.

—Doctor Deseo legez hainbeste denbora emon ostean indartsu sentitzen ginen zuzenean eta zehazki Desiraren inguruan doktoregoa egiteko, hori izan da gure asmoa. Halere, bistan denez, ezin genuenez Desiraren alde danen tesirik egin, bada 10 abesti sortu ditugu desiraren lurraldeetatik zuzenean eta Desioagaz eginak. 4 puntu kardinalena musika aldetik iruditzen zitzaigun interesgarria, Desiraren espektroa zabaltzeko, hain da ahaltsua eta garrantzitsua gure bizitzetan! Horregatik, barbarako: gitarra lantzeko moduak, dana Fender gitarraz edota erdi-distortsioak egin dugu, mendebalde, Amerika, sartaldea gogora ekarriko digu, jatorrizko rock&rollari, mugaldekoari, tex-mex-ari dei eginez; bestalde, lurraldea apur bat ekialderantz, sartalderantz zabaldu dugu, arabiar soinueta arantz... Horretarako arrazoia zelanbait azken aldian Atlasera, Marokora sarri egiten ditudan bidaietan

egon liteke; egia esan, Marrakexeko diskoteketan eta kabaretetan nabilenean, itzela begitantzen zait, esaterako, leku guztietan entzuten den musika elektronikoa oinarritzen den eta soinu arabiarrek dituen estilo barria, oso dibertigarria, oso interesgarria... Horrek guztiak eraginda... Gainera, *Mila eta bat gau*-ren lurraldea ere ekartzen digu akordura, eta hori ere Desirarentzako leku ona iruditzen zait, non Xerezadek burua ez galtzeko istorioak kontatzen zituen, eta guk ere burua ez

“Norbanakoak Desiratik gorde dezake bere burua, hori da gizarte honen ikuspegia, kaskarkeria onartzea”

galtzeko abesten ditugu kantak... Disko konplexua da; izan ere, aurreko guztiaz gainera flamenko-gitarra ere baditu eta *single*-ko kantari Maria Martinen, dagoeneko bilbotartutako malagarra, abesteko moduak ere hegoalderantz eroango gaitu. Eta amaitzeko, zelan ez, Iparraldetik sortutako diskoa da, Bilbotik.

—Eta beti legez, Bilbo...

—Egia esan, guretzat, Bilbo iparraldetik, Bilbo hegoaldeetik, Bilboko sartaldeketik eta Bilboko sartaldeketik egindako diskoa dela diogu; Bilbon dena sartzen da-eta... (kar, kar, kar).

—*Cartografia imposible* (ezinezko kartografia) goitizena dauka diskoak; sarri aipatu duzu Desira bera definigaitza dela, batzuk ahalegindu badira ere; zehaztea ezinezkoa, besteak beste, zorionetik zein samintasunetik eta minetik edaten duelako... Aztertzen eta bilatzen

12 disko eta 20 urte baino gehiago emon ostean, bere “ninietara-edo” zuzen-zuzenean begiratzen ahalegindu eta ausartu zarete oraingoan, zein litzateke Desiraren zure bertsioa?

—Aurretik ere kartografia txikiak, mapa txikiak egin izan ditugu Desiran barnertzeko, baina jakintzagaz legez, ziurrenik desirarik gizatiarrena dena, jakin-minare-



na, mugitzen gaituena... bada horregaz legez, zenbat eta gehiago jakin eta ezagutu, orduan eta argiago daukagu gero eta distantzia handiagoa lotzen zaigula, eta inoiz ez garela helduko guztiz ezagutzera. Zein interesgarria den! Amildegi hori... era berean beldurgarria ere badena. Eta Desiragaz beste horrenbeste gertatzen da, Desiragure bizitzaren motorra, eragilea da; izan ere, desiratzea bizitzea da. Halere, hari eta berarengan zenbat eta gehiago sakondu, barneratu eta bere lurraldeetatik zenbat eta gehiago jakin, alde argienetaz zein ilunenetaz, are amildegi gehiago eta eremu zuri gehiago antzematen ditugu, oraindik garatzeke daudenak. Desiraren lurraldea ikaste-prozesua da, azken finean bizitzaren ikastaldiagaz lotuta dago... Norbanakoak horri ihes egin diezaioke, edo horretatik gorde dezake bere burua, hori da gizarte honen ikuspegia, zelanbaiteko kaskarkeria onartzea; orduan norbanakoak desira eta desioak deuseztatzen ditu, ala kontsumoagatik edo antzekoengatik ordezkutzen... Hala, ez dute ez Desira handirik biziko, ezta sufrimendu handirik ere, kota gris batean sartuz... Lekuren batetik eztanda egingo duenera arte, agian... Horrenbestez, Desiraren lurraldean bizitzeak batzuetan zorian handi-biziko uneei aurre egitea dakar, non zorionak zentzua duen eta ez den itxurakeria; oster, bestetan, min eta atsekabe momentuak ere badakartza; minaren kontuan, norbanakoak bere burua minean galarazi lezake, horren baitan sartu eta gorrotoan zein beldurrean jausi; ala ikasketaren lurraldean sartzea da beste aukera, horretatik pertsona hobea legez eta indartsuago irten zaitezke... Sartzea erabakitzen duenak, kirtenek heltzea, Desiraren lurraldean barneratzea, alegia, hau da, gura duen lekuan egotea eta egon behar duen tokian izatea, non debozioa, zaletasuna eta beharra berdina diren... Badakigu momentu itzelak, apartak biziko ditugula, baina gogorrak ere bai... Aurre egin behar zaie! Hori da erronka.

—Diskoa aurreko lanetako abestiei egin-

dako keinuz josia dago, eta bestelako erreferentzia ezkutuz betea ere.

—Erreferentziak beti egiten dira, azken finean, danok ditugulako musikaren *underground*-ak (aurrekariak). Lehenengo eta behin geure lanaren erreferentziak daude, jakina, geure bidea jarraitzen dugulako; eta abanikoa, espektroa zabaltzen badugu ere, gauzak egiteko modu bat dugu, utzi

“Ipurdiak... Gure gorputza, azaleko poro bakoitza Desiraren objektua eta subjektua da; eta hala bedi!”

gura ez duguna, eta gure bide hori jarraitzen dugunez beti bertatik egiten dugu aurrerantz ere. Aurrerantz egin dugu, berbarako: Rolling Stones-en “Sympathy for the devil” abestiari erreferentzia eginez (“De chocolate y vanilla” kantan); edota argi eta garbi Felix Guattariren eta Suely Rolnik-en *Micropolitica. Cartografias del deseo* liburuari, Lularen aurretik plazaratu zena, Guattari lar baikorra izan zen “cartografias del deseo” ipintzerakoan, baina ahalegindu zen, behintzat; gero, lehenengo kanta oso Doctor Deseo da, tex-mexera garamatzana, betidanik oso gogoko izan dugun mugaldeko musika horretara, rockaren eta mexikarraren artekoa; une sikodelikoak ere badira, arabiar ukituagaz... Disko erdialdeko amesgaizto lako momentu hori; edota Leonard Cohen-en

“Agian, ez dago 80. hamarkadako surik, RRV-ren lako energiari, baina panorama zabalagoa da; interesgarria”

“Take this vals” kantari erreferentzia (“Baila conmigo este bals” kantan), edo Morenteri ere bai, baita zelanbait Dylani ere, e.a.

—Azken aldiko bideari jarraituz, oraingoan ere, euskarari lekutxo egin diozu, Omar Nabarroren (Edorta Jimenez) poema batean oinarritutako “Sodomako sa-

garra” kantagaz. (Alboratutako) Evaren “mitoa” gogora... Horri aurre eginez, اندrazko musikari-ablesari andanaren parte-hartzea izan duzue diskoan, baita Durangon emondako aurkezpen emanaldiko oholtza gainean ere, besteak beste: Anari, Aiora Renteria (Zea Mays), Maialen Lujanbio e.a.

—Aiora dagoeneko familiakoa da!

Neuretzat, esaterako, Durangokoa, itzela izan zen! Neu Aiora, Zea Mays, eta Anari zale sutsua naiz! Horrez gainera, handik Maialen Lujanbio agertu eta Desiraren gainean bertsoa botatzera animatzea... Ia negarretan urtu nintzen, benetan! Luxua da miresten duzun jendearen alboan egoteko aukera izatea, oso jende gitxik lortzen duena, nire ahotsa euren ahotsen alboan ipintzea... ikaragarria! Bestalde, lagun barriek ere parte hartu dute: aurkikuntza itzela izan den Maria bilbotartutako malagarra, “Que amanece de nuevo” kantan abesten du; Leire Maturana auzokidea, oso ondo abesten zuela bagenekien; Shipley (M-Clan-en teknikaria) bere mutil lagunak koruak eta gauzatxoak grabatzen hasi zitzaion eta ederto lotu da! Bestalde, oso interesgarria izan da

Leioako Big Band-agaz elkarlanean jardutea (“Lagrimas de placer” kantan), 20 bat lagun, 12 urtetik 70 ingurura; 12 urteko umetxoa bera baino handiago zen tronoa jotzen, lotsabako eta gazdun! Etorkizun aparta izango du! Eta haren irakasleak, batzuk ia 70 urtekoak... Taldearen kolore aniztasun eta aberasta-

sun hori Desiraren oparotasunari ondo dagozkiola begitantzen zaigu. Eta Josiren flauta, Mikel Pirisen flauta eta saxoa, Agusen (Agustin Perez) biola e.a. Horrek guztiak koloreztatu egiten du diskoa, zelanbait Desirak eduki ditzakeen nabardura guztiak musikalki islatzen ahalegindu gara.

—Jakinarazi duzunez, zuon euskara hu-

“Nahikotxo ikasi dut, dagoeneko; Lotsabako porrokatua bihurtu naiz! Halere, asko dut ikasteko oraindik!”

tseko kontzertuakaz, noiz edo noiz, gozarazteko aukerari ere egingarri deritoxue, lar urrun ahal dago egun hori?

—Ez; orain euskarazko hamar bat kantu dauzkagu, horrenbestez egingarria da; zerbait egin daiteke, agian ez kontzertu osoa, baina, agian El Deseo del Doctor lako zerbait, kanta baten bat gehiago gehituz... Izugarri gustatuko litzaidake, ekimen sano polita litzateke! Neuretzat benetako erronka.

—Diskoaren azal-kontrazala, xuabe esatearren, deigarriak dira: bi ipurdi, bata gizonezkoa, bestea andrazkoa... Taldeak beti izan duen jarrera edo izaera proboka-

tzaille, zirikatzaile, urratzaile, lotsabakori eusten dio, baina 20 urte baino gehiagopasa ostean esan liteke publikoa ez dela lehen legez asaldatzen... Zuen ibilbidetik zelan ikusten duzue oraina?

—Diskoaren azalari eta liburuxkari dagoenkienez, gu geure gorputzetatik abiatzen gara, geure azaletik, gorputz atalen irudiaz osatu ditugu, guztiek dute bere ga-

talde interesgarri asko dago, adib.: musika elektronikoko taldeak, We are Standarden rock eta dantza, Zea Mays, Anari e.a. Niretzat interesgarriago da, zabalagoa delako. 80. hamarkadatik egondako ez-tanda da interesgarriena, ezer ez egotetik “la ostia” egotera pasa ginen, orain egonkortasuna dago, askotariko proposamenak daude eta oso indartsuak batzuk, oro har musika kulturaren lerro guztietan!

—Eta Doctor Deseo bera zelan dago osasunez? Durangoko kontzertuan aitortu zenuen “dagoeneko ez zarela lotsabakoi-ikasle...”

—Nahikotxo ikasi dut, daborduko! Lotsabako porrokatua bihurtu naiz! Halere, asko daukat oraindik ikasteko, Desiragaz legez, beti dago zer ikasi. Eta, jakina, beti ikasten gabilta. Taldea sano ondo ikusten dut; publikotik kanpo pasatzen dugun urte bitarte horrek, berbarako, Durangoko oholtzara igotzean azterketa baten aurrean nerabe-ikasleak bezain urduri egoteko baliog digu, eta gogoak hasibarrienak lakoak izateko, lepoan mila kontzertu eroan arren; oso hunkigarria izan zen, negar egin nuen, erneguz garrasi egin, berotu nintzen, kitzikatu... Denetariko sentipenak bizi izan nituen, denak bizi-biziak eta indartsuak. ◊

Aretoak eta plazak, anbulatorio eta txerto

—Zaletuen artean badira taldea, horretarako aukera onak eta baliagarriak eduki arren, eremu lokalengan ibili dela, hau da, nazioartera salto egiteko aukerak baliatu ez dituzuela uste dutenak. Halere, aurreko diskoagaz egin legez, oraingoan ere Madril,artzelona edota Mexikon emongo dituzue kontzertuak.

—Alde batetik, gure ogibidea eta lana estimatzen dugun taldea gara, eta iraun dezan kontu handiz zaindu behar dugula uste dugu, eta gauzak bere neurrian emon. Orduan, oso astiro goaz, esaterako: gaur egun Madril 1.000

lagun erakartzeko gai gara gu bakarrik, iaz egin genuen, baina hori lortzeko urteak behar izan ditugu, ahoz aho funtzionatu dugulako. Han jo genuen lehenengo aldia 70 lagun egon ziren, eta beste talde batek ere jotzen zuen; gero 300 hurbildu ziren, hurrengoan Gruta 77en 400... Edoartzelona, Apolo I aretoan joko dugu orain. Oso astiro, oso lasai doan taldea gara, baina horrela 20 urteotan iraun dugu, apurka. Lanbidea mimatzen dugu, gozatu ahal izateko eta biziki bizitzeko, bestela erreta amaituko genukeen; ez dugu arrakastaz hil gura, ezta kontrako ezta

sartzea ere... izugarria da-eta! —Euskal Herriko hamaika areto eta plazetan ibiliko zarete aurten ere, herri-jaietan zenbaitetan. Eta oraintsu Jai Herrikoien alde aurpegia ipini dutenen artean zurea ere ikusi dugu. —Argi eta garbi. Zenbait konturen paradigma gure sinesten dugu. Demokraziak, eta bertan sakondu ahal izateko, ez du izan behar bakarrik giza-eme edo emakume batzuk aukeratu eta 4 urtez gura dutena egitea, baizik eta esparru guztietan jendearen eta kolektibo guztien partehartze zuzena egon eta ahalbidetu behar ditu... ◊



Zamaketariak Luklako (Nepal) aireportuan



Zamaketariak aireportuan turisten zain

Nepalgo zamaketariak

Herri ederra da Nepal. Mendizaleak aspaldi konturatu ziren horretaz, Himalayako paisaiek liluratuta. Herri txirotua ere badugu. Mendietako bide zidorrak ibiltarientzako oso prestatuta daude. Baina norbaitek prestatu behar, nortzuk eta zamaketariak. Mendira igo behar izaten dute materiale guztia, etxeak egiteko oholetatik hasita, turistok kontsumitzen ditugun edarietara. Hamarnaka kilo jasaten dituzte euren bizkarrek; pertsona gogorak, halabeharrez. Asier Mentxaka UK-ko argazkilariaren kamera izan da horren lekuko.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Mendiko biztanleen ongi etoria



Emakumea oinak garbitzen Kathmandun (Nepal)



Ebeak eraikitzeko materiala igotzen



Turistentzako denda mendian



Namche Bazaar (Nepal)



Zubi tibetarrak ugariak dira mendri bideetan



Ernakurmea kalean ottoi egiten



Zamaketeria mendirako bidean



Everesteko beheko kanpalekua



Zamaketaria beheko kanpalekura heltzen



Yak; zama astunak garraiatzeko erabiltzen dituzte



Yak karabana



BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkarte

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARRKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Comète sarea zinera

II. Mundu Gerran aliatuei lagundu zieten euskal mugalarien gaineko hainbat lan



Azken urratsa dokumental historikoaren filmatze irudia

Comète sarea Belgikan Andrée de Jongh andrazko gaztearen ekimenez sortu zen 1941ean. II. Mundu Gerrako Europa hartan, naziek lurralde zabala zuten euren menpe (esaterako Frantzia; ondorioz, Ipar Euskal Herria), eta alemaniarrei aurre eginez jarduten zuten herrialdeetako (besteak beste, AEB, Ingalaterra, Kanada, Australia), "aliatuen" hegazkin pilotuak nazien eremuan jausten zirenean ihes egiten laguntzeko sortutako sarea izan zen *Comète* delakoa. Horrenbestez helburua eta sarekideen egitekoa pilotu aliatuak Londresera irits zitezen laguntzea zen, gerrara itzultzeko; horretarako 20 bat sare-bide antolatu zituzten European zehar; ihesbide horietako bat gurean, Bidasoa ibaia zeharkatzen zuena; izan ere, teorikoki frankismo garaiko Espainia "neutrala" zen gerra harekiko, hala, Ipar-Hego Euskal Herri arteko muga ihesbide ere bazen. Diotenez, 15-20 lagun inguru ibili zen Euskal Herrian mugalarri, eta orokorrean, sareak 800 lagun ingururen ihesaldia ondo urtetea lortu

zuen. Handik ia 70 urtera gaur, historia zati hori oinarri eta abiapuntu dituzten hainbat ekimen pantailaratuko dira laster. Alde batetik, orain 5 bat urte hasitako, Enara Goikoetxea eta Iurre Telleriak zuzendutako eta Moztu Filmak ekoitzi (Frantzia-Belgikagaz koproduzioan) duen *Azken urratsa* dokumental historikoa hemendik gitxira aurkeztuko dute; halere,

«Azken urratsa dokumentala eta Mugaldekoak telefilma eta telesaila»

kasu askotan ez bezala, hernaniarrek bildu duten historiaren pasartearen ihesaldia ez da gura legez amaituko. Bestalde, Tentazioak ekoiztetxeak *Mugaldekoak* telefilma eta 13 kapituluko telesaila egin ditu, eta maiztzeetik aurrera ETB1ek eskainiko ditu. Telefilma F. Bernuesek eta M. Gabilondok zuzendu dute; telesaila E. Olasagastik, Gabilondok eta Carlos Zabalak. Aktore Iñaki Beraetxek edota Matxalen de Pedro (De Jongh) plentziarrak jardun dute. o

Leioako Pop-Rock lehiaketa

Aurkeztu diren ia 140 taldetatik Pop-rock zein metal **finaletarako hiruna talde aukeratuta**



Lasarte-Oriako Oreindik taldeari emon diote Euskarazko abesti onenaren saria

X. edizioa du aurten Leioako Pop-Rock Lehiaketak, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurten ere "aurreko urteetako arrakasta" lortu dute. Oro har, Leioatik, Euskal Herri osotik baita Espainiatik ere ia 140 taldek bidali dituzte euren musika proposamenak. Aurkeztu diren lehiakide horietatik metal sailerakoak 44 talde dira, eta pop-rock esparruan euren burua aurkeztu dutenak 94. Euskarazko abestirik onena saritzeko antolatzaileek 26 talderen artean aukeratu behar izan dute, 13 metal estilokoak eta beste horrenbeste pop-rockekoak. Hala, horietatik, Lasarte-Oriako (Gipuzkoa)

Oreindik taldea izan da onena epaimahaia- ren iritziz. Bestalde, Pop-Rock zein Metal saileko finalak, ohi legez, herriko jaien ingurumarietan egingo dira, pop-rockarena ekainaren 18an eta metalarena biharamunean, hilak 19. Final baikoitzean jardungo duten hiruna taldeak ere aukeratu dituzte dagoeneko, ondorengoak: pop-rockekoak, All Reasons (Mungia), The Band Apart (Madril), eta Sorotan Babies (Sara, Bera); metalekoak, Midnight Road (Bilbo), Belöp (Rondela, Galizia), Niño Pajaro (Getafe, Espainia). "Leioako Udala" eta "Aterpe Gazte Bulegoa" sariak emon barik lotu dira. o

Sokaide > aurkezpen diskoa

Ortozik (Babel Musik, 2010) estreinako lana aurkeztu badute ere ezagunak dira euskal plazetan taldeko kideak (besteak beste Amaur taldean ibili direlako): Naroa Gaintza (ahotsa), Igon Olaguena (ahotsa eta trikiak), Urko Izquierdo (biolina), Ander Tejerina (gitarra), Alex Lopez (baxua) eta Josu Barrenengoa (bateria). Sokaide taldea Izquierdo eta Olaguenagak sortu zuten orain hiru bat urte, eta apurka taldekide barri ezagunak batzen joan zaizkie. Taldearen folk-rock doinuak eta lehenengo diskoko kantak entzuteko aukera izango duzu Amurrión (hilak 1), Urduñako jaietan (hilak 8) edota Mendebala Folk jaialdian (Sopuerta, uztaialak 3).

Informazio gehiago: www.sokaide.net

bigarren diskoa > Elkano Browning...

Orain 5 urte ezagutu zuten alkar Mikel Azpiroz musikari euskaldunak, Franck Mantegari bateraijotzaile paristarrek eta AEBko Matt Harding gitarrajotzaile eta abeslariak. Handik urte batera plazaratu zuten Elkano Browning Cream hirukoteak izen bereko lehenengo lana, eta orain kaleratu dute *Elkano Browning Cream 2* lana (Mamusik). Azpiroren proiektuaren "izaera multikultural eta nomadaren ikuspegitik pertsonalizatu eta gaurkotutako soinua da; erritmo jostagarri eta kutsakorren sinonimo, Hammond organo hirukoa- ren oinarritzko formatoan du funtsa, bere esentzia groove-aren zentzurik garbienean oinarrituz: erritmika dantzagarrian".

Informazioa gehiago: www.elkanobrowningcream.com

diskoak

Deseo: Cartografia...
Doctor Deseo
Baga-Biga



Desiraren lurraldean erabat murgildu dira Bilbo ingurukoak azken lanean, "desira eta pasio handiz". Doctor Deseo deituta, ba omen zeukaten garaia desirari buruzko diskoa egiteko, eta iritsi da azkenean Deseo: *cartografia imposible*. Anari, Aiora Renteria, Maria Martin eta Leire Maturanaren ahotsak ere entzun daitezke.

Bizkaiko golfoak
Itziarren Semeak
Musiknema



Estudioiko bigarren lana dute mungiarrek. Ska, punk eta reggae doinuak dira nagusi tabernetako maitasun, gorroto eta borroka kantetan. Lagunakaz, bakarrik edo maitefoagaz abesteko ereserkiak, "Bizkaiko golfoak" gurtuz. Antza, Ska-Patxaranari Guinness garagardo zaporea eman gura izan diote.

Malatu
Malatu
Gaztelupeko Hotsak



Euskal kantagintza, jazza, aire latinoak, ekialdeko melodia ijitoak, perkusio afrikarrak edota flamenkoa... Denetarako tokia dago lan honetan, eta fusio horretatik "swing handiko" musika sortzen ei dute Malatu taldekoek, "entzunerraza baina landua, atsegina baina ez hutsala". Klub batean zein udako gau bateko zeru izartupean gozatzeko.

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargorta & Etxepare Argitaletxeak
94 430 15 00
Algorita

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebia 1 Tf. 94 460 27 41

Algorita

[liburuak]

Joan-etorriko bidaiak

Euskal hegoak astinduz **Irlandako lore-
hautsez** elikatu da **bigarren Erlea**

Irlandako festa nazional Saint Patrick egunean plazaratu zen Euskaltzaindiak argitaratzen eta Pamiela argitaletxeak editatzen duen *Erlea* literatura aldizkariaren bigarren zenbakia (salneurria 12 euro), orain ia 2 hile. Hautatutako kaleratze datoren arrazoia oraingo zenbakiak Irlanda jorragai nagusi izatea da. Lehenengo zenbakiak "Mendebaldeko Euskal Herrira, *far west*-era" bideratu bazuen begirada, bigarren honetako irlandar erronkako oinarriak dira: 1995eko Nobel sari Seamus Heaney idazle irlandararen poema bi eta aipatutako saria lortzean egindako hitzaldiaren zatitxoak, eta Paddy Woodworth kazetari eta euskaltzale irlandarrak hautatutako Irlandako literatura

**«Heaney Nobel saridunaren
berbak, irlandar literatura
historiaren lagina, e.a.»**

historiaren lagina (Mac Giolla Ghunnak, Brian Merriman, Nuala Ni Dhomhnaill, Patric Kavanagh eta Derek Mahon-en lanak). Horrez gainera, Jose Irazu "Bernardo Atxaga" idazle eta euskaltzainak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariak, Jose Angel Irigaraiak Irlandako historian esanguratsuak diren zenbait gertakari azaltzen ditu *Dublin 1932, balizko elkartzun argazkiak* testuan, eta Txomin Artolak hirustaren herrialdean



J. L. Zumetak margotu du 2. *Erlea*-ren azala

egindako egonaldietako argazkiak aukeratu eta iruzkindu ditu. Zumetak egindako azalagaz aurkezten zaigun aldizkarian alkarrizketei leku handiagoa eskaini diete, hala Marino Lejarreta txirrindulariak bere "objektuen" gainean egin du berba eta Junes Xuburu "azken zuberotar kantaria" alkarrizketatu Miel A. Elustondok. Bestalde, berbarako, K. Izagirre, A. Arkotxa, X. Montoia, Joxean Agirre, Victor Montero edo H. Kanoren idatzi eta iritziak ere biltzen ditu 2. *Erleak*; hurrengoetarako Atxagak esan duenez, "idazle guztiekin hitz egingo dut, ahots desberdinak interesatzen zaizkidalako. Ahotsak nahi ditut, ez dut nahi korurik". ◊

liburuak



Itzalpetik
Leire Urbeltz/Yolanda Arrieta
Erein

Amalurragaz dugun harremana da Yolanda Arrieta idazle bizkaitarra eta Leire Urbeltz ilustratzaile iruindararen liburu ilustratua landu gura duen ideia. Amini eta Manare nebarreba protagonistak ilupean geratu den hirian dira; jendea zoroen pare dabil.



Nelson Mandela
Maritxu Murua
Elkar

Duintasunaren eredu izan zen gizonaren biografia euskaraz idatzi du Maritxu Murua. XX. mendearen bigarren erdia markatu zuen pertsona handienetakoa; 27 urtez kartzelan egon zen arren, Apartheid-aren kontrako borroka gidatzea lortu zuena.

[kirola]

Cabobillano Eskola

Aketza Sanchezek gidatzen duen eskolak zenbait **jarduera gehiago** eskaintzen du



Eskola urte osoan dago zabalik. Informazio gehiago: www.cabobillano.com

Munduan zehar bizileku bila ibili ostean, orain dela 8 urte heldu zen Plentziara Aketza Sanchez surflaria. "14 *davaoz surf eskolak emoten, Azkorrin hasi nintzen, eta orain 8 urte ipini nuen martxan Cabobillano Surf Eskola eta denda; dena ametsa legez hasi zen, gogokoen dudanetik, itsasoa eta abentura, bizitzaren ahalegintzea zen... Furgoneta, oholak eta jantzi batzuk eta gogo biziak lepoan hartuta abiatu nintzen*", azaldu du Eskolako entrenatzaileak eta gerenteak. Orain Cabobillanok zerbitzurako hainbat auto, Plentziako hondartzan dutxadun lokala, eta bizikletak, kayakak, *paddlesboard*-ak e.a. dituzte.

Sanchezek jakinarazi digunez, "neguan neure buruaren trebakuntzan eta neska-mutilenean jarduten dut; eliteko surflari taldea da, hurrengoek osatzen dute: Garazi Sanchez, Leticia Canales, Jaty Berasaluze eta Kosme Fernandezek; gainera, egunero hazten doan etorkizun handiko harrobia badugu. Guztira 36 gara Cabobillano taldean". Udabarri, uda eta udagoienean beste eskaintza batzuk dituzte: kayak eta *paddlesboard*-ak alokatzen dituzte. "Paddlesboarda eskaintza barria da, horretan aitzindariak gara; ea zelan doan..." dio Esko-

lako arduradunak. Plentziako itsasadarra kayaken jaisteko aukera ere eskaintzen dute (19 euro), eta "gaztetxoaren artean arrakastatsuak diren" udalekuak ere antolatzen dituzte, aurten ingelesez ere bai. Sanchezek gogora dakarkigunez, "hemen esanguratsuen eta hedatuena surfa da", Eskolak hastapen (6 urtetik aurrera; 2-3 ordu egunean; 120 euro) eta jarraipen ikastaroak ditu, "ohola gainean zutunik ipintzeko beste ikasi

**«Plentzian kirol honetarako
olaturik onenetarikoak dugu,
luzea eta erraza»**

dutela bermatuz, bestela errepikaratzera!", dio. "Plentzian kirol honetarako olaturik onenetarikoak dugu, luzea eta erraza, eta ezin da ahaztu gutako askok, adib. Eneko Acerok, hor egin genituela surf-hastapenak", goraipatu du Sanchezek. Cabobillanoz harro dago, "eskolak izen ona lortu badu familia handia garelako da, norabide berean tiratzen dugu denok, hau da, harreman pertsonaletik... horregatik funtzionatzen du abenturaren magiak; niretzat hori da garrantzitsuen, aberatsena ez izan arren lasai lo egitea". ◊

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA
KIROL
MODA**



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 KASURIA 18 - ALGORTA

Gorka Hernandez > Herria Abian plataformako kidea

“Beste ekonomia eredua behar dugu, baina herritarrok ere definitu behar dugu”

Leioako Udondo gaztetxean hitzaldia eskaini zuen apirilean Gorka Hernandezek, aldaketa sozialerako Herria Abian plataformako lagunak. Hori guztia zertan datzan galdetu genion.

—Hitzaldiak ematen zabilzate, baina zer da Herria Abian?

—Langileok, gazteok, emakumeok, nekazariok, ezgaitasunak ditugun pertsonok, arrantzaleok, ikasleok, ekologistok, garraiolari autonomoak, pentsiodunok, migratzaileok, langabeok... osatzen dugu Herria Abian plataforma. Izan ere, uko egiten diogu espekulatuzaileek euren diru gosez sortu duten krisia ordaintzeari. Horiek dabilta kapitalismoaren birfundazioa iragartzen, baina ez gara lotuko besoak gurutzaturik; alderantziz. Kapitalismoaren aurrean, eredu ekonomiko eta sozial alternatiboa eraiki gura dugu. Horretarako mobilizatuko gara, Euskal Herriak eta gure planetak behar duten aldaketa sozialaren alde. Krisiaren aitzakiapen herritarrok pairatzen dugu eraso; hari aurre egiteko sortu genuen herri plataforma. Euskal Herrian, ezkerreko ikuspuntua daukagun hainbat eragile eta norbanakok, martxan jartzeko beharra ikusi genuen, nahiz eta bakoitzak bere esparrutik lan egin. Beharrezkotzat jo genuen gutxieneko akordio edo irakurketa bat egitea. Zertarako? Gure herriaren eta herritarren bizi-baldintzen murrizketa eragiten dion erasoari aurre egiteko.

—Eta zein helburu daukazue?

—Herritarrek aktibatu gura ditugu. Indar metaketa egin behar dugu aldaketa soziala gauzatzeko. Eredu ekonomiko honek aldaketa sakonak behar ditu; are



Informazio gehiagorako: www.herria-abian.org

gehiago, beste eredu ekonomiko bat sortu behar dugu. Horretarako bultzatuko ditugu herri honek behar dituen tresnak, eraldaketa soziala gauzatzeko.

—Noiz sortu zenuten plataforma?

—Iazko otsailaren 14an egin genuen agerraldi masiboa Euskalduna zubi ondoan, *Karola* garabiaren oinetan. Aitzakiaz hartu genuen zera esateko: krisiak beti daude, eta aurrekoen

rrikatzea, patronalari esan zitzaioleko ezetz, ezin zela hori modu hartan egin. Garabia ematen du arte-lanak, baina ez da horrela. Nolako langileak eta industria geneukan gogorarazteko dago. Herria batzeko garrantzia azpimarratu gura genuen. Kapitalismoari harresia jarri eta nahikoa dela esan gura diogu. Jendartea herritarrok, langileok sortzen dugu, hau da, gehienok. Ezin onar deza-

“Ezin onar dezakegu lau katu boteretsuk gure bizi-baldintzak murriztea euren mesederako eta diru gehiago eskuratzeko”

moduan, krisi hau ere pasako da, eta beste bat etorriko da, eta beste bat... Izan ere, kapitalismoan gabiltzan bitartean, gugaz jolasten ibiliko dira. Beraz, *Karolan* egindako agerraldian, irudikatu gura genuen 80ko urteetan Euskalduna lantegiko itxiera salatze borroka herritarra aktibatu zela, eta tresna hori alda-

kegu lau katu boteretsuk gure bizi-baldintzen murrizketa gauzatzea euren mesederako eta diru gehiago eskuratzeko. Beste ekonomia eredu bat behar dugu, baina herritarrek parte hartu behar dute hura definitzeko. Baina ez dugu teoria bakarrik landu; hainbat mobilizazio egin dugu, greba orokorrera

dei egin genuen, kalera atera gara...

—Egoeraren **diagnosia osatu duzue, baina zer dator hemendik aurrera?**

—Bigarren fasean murgilduta gabiltza, *Aldaketarako abiapuntua* txostena osatzen. Hitzaldiak herriz herri aurkezten gabiltza dokumentua, eta ekarpenak biltzen. Ondoren, txostena onartuko dugu maiatzaren 15eko jardunaldian. Donostiako Altza auzoko kultur etxean izango da, 10:00etatik 14:00etara. Lau puntu garrantzitsu biltzen ditu txostenaren zirriborroak: lan produktiboaren nahiz berproduktiboaren banaketa, aberastasunaren banaketa, ekonomiaren demokratizazioa eta ekosistemaren garapen eredu demokratikoa. Txostena osatuta dagoenean, gure asmoa sozializatzeko tresna gisa erabiliko dugu.

—**Aldaketa ez da gauza erraza.**

—Ez da bat-batekoa izango, baina

parte-hartzaile guztiek kontuan hartzen badituzte agertzen diren premisak, herritar mugimenduaren indarra eta mezua asko alda daiteke. Beraz, gaitasun handiagoa eman diezaike. Txosten hori, taula erreibindikatibo hori, erabiliko dugu sozializatzeko beste Euskal Herri bat behar eta gura dugula. Hau

tresnak definitzen ibili gara ikasturte honetan. Maiatzeko bilkuran adostuko dugu ondoriok nola jendarteratu.

—**Herri aktibazioaz aritu zara, nola parte har dezake?**

—Plataforman parte hartzen dugun eragileok atek zabalik dauzkagu, aldagai bi horiek kontuan hartuta: Euskal

“Herritarren parte-hartzeak eta mobilizazioak ekarriko du aldaketa; bestela, jai dugu!”

da, ikusi genuen jendartearen herri sektorea modu larrian prekarizatzen ari zela. Gainera, prekarizazio hori eredu neoliberalaren tresna zela ondorioztatu genuen, eta dekretuz edo legez, bere mesederako egokituta zegoela. Horrek bizi-baldintzen murrizketa dakar. Beraz, aldaketa soziala gauzatzeko beharrezko

Herri osoaz ari garela eta aldaketa beharrezkoa dela. Baina eragileetatik kanpoak ere parte hartzen dabilta prozesuan. Eta kalean, noski, mobilizatioetan. Baliabideak eman eta parte hartu behar dute. Herritarren parte-hartzeak eta mobilizazioak ekarriko du aldaketa herri honetara; bestela, jai dugu! ○

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Gebxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

Juan Migel Sagasti > Santa Koloma

“Urduri edo depresioak jota dabilena, paraje hau ezagutzera gonbidatzen dut”



“Santa Koloma ingurura hurbiltzen bazara, inguru horretan entzungo duzu kukuaren kanta”

Heldu da udaberria Getxora, badakizu nola jakin dezakezun hori? Santa Koloma ingurutik ibiltzen bazara, inguru horretan entsungo dozu kukuaren kanta. Faduratik oso hurbil dago, Berango, Leioa eta Erandio udal herri erdian kokatuta dago eta heltzeko Faduratik joan behar da. Bolue arana, Santa Koloma edo Larrañazubiri buruz berbetan hasten naizenean hainbat gauza jatortez burura, nire haurtzarora, nerabezarora, gaztarora, (ezkondu arte) baita auzokoak (errotaetxeak, astika-

koak, loazekoak, esesumagakoak, etebarrikoak, eta abar nola ahaztu izen hauek? Baserri horretan bizi direnak parebako jendea da eta. Konparatzen badodaz denbora haiek honekaz, paraje eder hau ez da hainbat aldatu (kamiño eta zerbitzuak izan ezik), leku oso dotore eta lasaia da, Getxoko txokorik ederrrena, lasaitasunez betea, bai paseotxo bat emateko bai zuhaitz baten gerezpean zerura edo lurrera begira egoteko ere.

Santa Koloma ingurutik ibiltzeko garai hoberena, udaberria eta udazkena

dira, bertan ikusiko ditugu naturaren jaiokera eta hilera, baserritarraren azken aztarnak, XVI. Mendeko basiliza txikia, ikusteko aukera dogu, baita naturagaz bat egiteko ere, zeren entzungo dogun zarata bakarra, txoriaren kanta, haizearen ahotsa edo ardiren baten zintzarriak izango dira. Halan ze bataren bat urduri edo depresioak jota badabil Getxoko paraje hau ezagutzera gonbidatzen dot, ikusiko dau hiririk zein hur dagoen eta aran honetan sartzean zein urrun hel daitekeen. ○

Toponimoa > Santa Koloma

Santa Koloma (baseliza):

Ibarrekoerrota baserriaren ondoan dagoen basiliza. Santa Koloma (III. mendea) Sens herrian bizi izan zen eta harekiko jaiera oso zaharra da iberiar penintsulan. Kondairak dioenez, uko egin zion jaun aberats batek ezkontzeari birjinitateari eutsi gura ziolako eta epaile batek prostituzio etxe batean sartu zuen zigortu guran. Baina bortxatzen saiatu zirenean hartz batek salbatu omen zuen. Azkenik lepota moztu zioten. Santutegian abenduaren 31 da jai eguna, baina Getxon, beste leku askotan bezala maiatzaren 28an ospatzen da. 1950ean konpontzeko asmoa ageri zen, erortzeko zorian baitzegoen, baina asmoak asmo 1952an erori zitzaion teilatua. Azkenik, 1955ean ekin zitzaion konpontzeari eta ekainaren 29an ber-inauguratu zuten. Lan hauek egitean aurkitutako harri batean XVII. mendeko data idatzita ageri bide zen. Dokumentazio zaharrean Santa Columba aldaera ageri da. Kondairak dioenez basiliza beste leku batean eraikitzeko asmoa izan zuten. Handik hurbil, baina Berangoko lurretan, gaur egun ur biltegia dagoen lekuan. Egunez egindako lan guztia desegiten zen gauzez eta gainera tresnak eta materialak lekuz mugitzen ziren. Azkenean, neka-neka eginda gaur egun dagoen lekuan eraikitzea erabaki zuten. Deigarria da istorio hau hainbat lekutan biltzen baita Euskal Herri osoan. Antza, basiliza Errotaetxe baserriarena da, hori dela eta pentsatu behar dugu jabetza osatzen zutela baserriak, basilizak eta beheko erroak.

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

L’Ancora Jatetxea

Italiako zaporeak ukitu modernoagaz



Txus Perez L’Ancorako areto burua eta Dang Gajonera

Italiako espezialitateak ukitu barritzaile eta eskusiboagaz. Hori da, hain zuzen ere, Getxoko Kirol Portuan dagoen L’Ancora Jatetxeak eskaintzen duena. Goi-mailako hiru sukaldari batu dira: Alvaro Martinez, Jose M. “Txumi” Muriana eta Aitor Rios. Hiruren artean errezeta originalak prestatzen dituzte, Italiako lehengaiakaz, baina hurbileko estilo pertsonalagaz. Eurekaz batera, bezeroei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzen saiatzen den lantaldea.

Karta, postre eta ardoen eskaintza zabala da L’Ancoran. Alde batetik, etxean egindako pasta eta pizzak dituzte; bestetik, sarrerakoak eta haragi eta arrainak: txangurro rabioliak txapiro saltagaz, atungorria marmitako kremagaz e.a. Italiako entsalada, rabioli, lasagna eta

espagietei, euskal ukitua ematen diete Idiazabal gazta edo begi-handiakaz. Sutean ibiltzea gustuko dutenentzat, euren errezetak zelaz egin azaltzen dute jatetxe web gunean: www.restaurantelancora.com. Ardoa dastatzen gozatzen dutenentzat barriz, Euskal Herritik, Italiatik zein munduko beste txokoetatik ekartzen dituztenak ikus daitezke webean. Gozozaleentzat, azken burukoak, krepe eta irabiaki bereziak dituzte, bazkaria edo afaria biribiltzeko zein arrastian askari berezia egiteko.

Kirol Portuko lokalean bazkaldu eta afaltzeko aukera emateaz gain, etxera eroateko janaria prestatzen dute: entsaladak, pizzak eta tiramisua. ○

Cubita kaia 10-11, GETXO
TF. 94 460 01 03

Zure publikitatearen omen
Zure publikitatearen omen
Zure publikitatearen omen

94 491 13 37



BASALBO BASERRIA

ARTAZA ETXEA
JATETXEA
• gosariak
• txuletoia • bakailoa
• arrain freskoa
antebarnetan bazkari eta afariak enkargaz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Euzkian, Gubela erailkaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko,
Pate eta Gaztazietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
TF. 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

• Maidagan 35, GETXO TF. 94 491 11 25
• Mayor 17, AREETA TF. 94 464 77 29
• Sabino Arana 67, LEIOA TF. 94 464 40 58
• Tolosa 11, ALGORTA TF. 94 460 32 14
• Sabino Arana 9, SOPELA TF. 94 676 11 01

JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTEUA
Aribatz z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**


GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prensa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lantzeriak
Orduña Mendatea 1 Teltokia 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia

Usategi parkea z.g.
Algorta
*Tf. enberrak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Energiaz gainezka zabilzta. Ea zertan gastatzen duzun! Zure lagunak opariren bat eskertuko lizuke. Urtebeterako ez zuela gura esan zizun, benetan sinetsi zenuen?</p>	<p>OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Maite zaituen horrek, malcoak isuraraziko dizkizu. Kontuz bikotearekiko harremanetan. Bestelakoan, sasoi betean zaude: osasuntsu, baikor... Bizitza gozatzeko prest!</p>	<p>ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Ardo goxoak, lau begi eta oinik ez. Parranda ugari, ezta? Esaera zaharra gogoan hartu eta lasai zaitez, udarako denbora gutxi falta da eta akituta iritsiko zara oporretara.</p>
<p>AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Dena kontrari daukazula uste duzu? Benetan horrela al dira gauzak? Hobe zenuke zure burua aztertu. Batzuetan erruduna norbera izaten da, eta ez munda...</p>	<p>HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Zekena izatea ez da gauza ona. Ez daukazuna ez gastatu, baina noizean behin eskua poltsikora erosten baduzu, erronda ordaintzeko izan dadila, behingogatik behintzat.</p>	<p>EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Lan egiteagatik ez da ezer gertatzen. Gainera behar duzun dirua irabazteko modu bakarra izan daiteke. Bestela, ez daukazulako, ez negarrik egin. Maitasunari dagokionez, garai latza.</p>
<p>GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Benetan maite baduzu, esaiozu: zabaldu zure bihotza eta ea zer gertatzen den. Hobeto sentitzen zara horrela, ezer egin barik? Kontuz diruagaz, espero bako gastuak datozkizu eta.</p>	<p>LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Nekatuta sentituko zara, baina arazoak ahazteko, etxean geratzea agian ez da behar duzuna. Urten: zure ametsa kalean egon daiteke. Edo telebistan bilatzen jarraituko duzu?</p>	<p>IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Sasoi bete-betean zaude eta gainera harremanetan ederto moldatzen ari zara azken bolada honetan. Zorixarrez, zure gastuak kontrolatzen hasten ez bazara, diru kontuetan gauzak oker dakizkizuke.</p>
<p>META (Irailak 17 urriak 16) Minbera eta suminkorregi zabilzta azkenaldian eta hurrengo egunak onak izan litezke jarrera hori alde batera utzeko eta ondo pasatzen hasteko. Diruari ez hainbeste begiratu.</p>	<p>HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Zaindu zure gastuak, ezin duzu gastatu ez daukazuna. Elikadura zaintzea ere komeni zaizu. Kiloak ez dira galtzen ura edanez soilik. Ez sinetsi telebistan kontatzen dituzten mirariak.</p>	<p>NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) Nekatuta sentituko zara, baina kontraesankorra iruditu arren, hobeto sentituko zinake kirol apur bat gehiago egingo bazenu. Aprobetxatu eguraldi ona eta paseoak egitera urten.</p>



Koskakideak behar ditugu
irratia aurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Herria.....
E-mail..... Telefonoa.....

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

**12€ urtean !!
€1 hilean !!**

KOSKA
irratia 108 FM

koskairratia@koskairratia.com
k/ Amezti 6 4.pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com

Bidali zure datuak
posta elektronikoko edo
posta arrunt bidez

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2			■							
3				■						
4					■				■	
5								■		
6			■							
7		■			■					
8							■			
9								■		
10										

Ezker-eskuma

1. Garunaren atzeko eta beheko zatiak, hemisferio bitan banatuak. 2. Garai batean hala esaten zitzaion zakurrari. Guraize edo artazi handien moduko tresna, metalak-eta ebakitzeko erabiltzen dena. 3. Marinelen zerrenda. Gipuzkoako herri bateko. 4. Garraio mota. Nafarroako urtegia. Kontsonantea. 5. Zeta, zenbait intsekturen beldarrei darien gaia. Herri hizkeran, eta. 6. Kasik, abantzu. Bosniako. 7. Potasioaren ikur kimikoa. Larrialdiko laguntza oihu. Nafarroako ibaia. 8. Zerriei ematen zaien janaria. Joan den urtea. 9. ...batean, berehala. Litioaren ikur kimikoa. 10. Metalezko bola barne-hutsa eta zuloduna.

Goitik behera

1. Pluralean, euskal dantza ezaguna. 2. Jausia. Haragia biltzen duen mintza. 3. Röntgen. Pinu mota. Arnas. 4. Ukatzeko, ezeztatzeko. Milak, sestrak. 5. Lehenengo bikoitia. Eritasun larri eta kutsakorra. 6. Ezerez. Amerikako Estatu Batuak, laburtuta. 7. Suitzako hiria. Naizen hau, neroni. 8. Zangoaren atala. Ipar Euskal Herrian, inguru. Berrogeita hamar, zenbaki erromatarren arabera. 9. Gabarra txikia. Filipinetako herri bateko kidea eta hizkuntza. 10. Zamarazia, karga emana.

Soluzioa

V	O	T	I	B	V	K	S	V	K
I	L	N	E	R	A	T	I	V	A
Z	V	I	V	E	L	V	G	O	
V	G	H	V	L	E	H			K
R	V	I	N	S	O	B		V	I
V	T		V	A	K	I	R	I	Z
G		V	S	E	N	E	T	R	E
R	V	A	N	U	D	V	L	O	R
V	A	L	V	I	Z	Z	R	O	
K	V	L	O	A	K				

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein musika taldetako abeslaria da zenbaki honetako *Berbetan* ataleko elkarrizketatua?

> Aurrekoaren erantzuna: Sarea Josten
> Irabazlea: **Josu Borja***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zein ur kiroletan dugu ezaguna Kepa Acero?

- **Igeriketa sinkronizatua**
- **Arrauna**
- **Surfa**

> Aurrekoaren erantzuna: Jolas parkeak
> Irabazlea: **Hikma Orue***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37


SARIA

SARIA **Argia**
astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Aurtengo Nobedadeak: Zoo Zorua eta Armix Kart

Demoak:
www.elhuyar.org/armixkart
www.elhuyar.org/zoozorua



Joko hau opari gura baduzu, Interneten erosi; %5eko deskontua www.elhuyar.org/edizioak helbidean



JOSEBA ZUBILLAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ASTRABUDUKO "ATXAZPE" MENDI TALDEKOAK, 1956

Urte berean sortua, hauxe izan zen mendi talde honen lehenengo urteera, Zugaztietara. Goizetik Areetara trenetaz eta gerokoa oinez. Areetan gasolinontzia hartu (une horretako argazkia duzu goikoa) bestaldera pasatzeko. Gero funikularraren bidetik Larreinetako geltokira igo eta handik Zugaztietara. Bertan bitaminak hartu (bokata, zahatoa, ...) eta etxera itzuli bazkaltzeko, baina ez balkaltzeko orduan, zertxobait beranduago baizik. Argazkilaria ziur asko Jaime Linares izango zen, bera baitzen horretaz arduratzen zena, eta horregatik, bera ez da agertzen argazkian. ○

Atzean: Carmelo Llantada, Pedro Elosegiren koinatua, Iñaki Uria (GB), Jose M^a Castro, Miguel Aresti "Txakurzulo" (GB).
Aurrean: Gregorio Agirre (bizkarra erakusten) (GB), Joseba Zubillaga, gasolinontzikoa, Jose Luis Uriagereka, Pedro Elosegi.

[aitormenak]

YAHAIRA AGIRRE > judoka

“Burugogorra naiz, baina kirolean garaipenak lortzeko positiboa da”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Ekina eta langilea.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Million dolar baby filman. Protagonistak entrenatzaileagaz daukan harreman beretsua daukat nik nireagaz, ia-ia aita baten modukoa da.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Ez dut nire burua ezertan ikusten, kirolagaz harremanik ez badauka. Umeakaz lan egiten dut eta doktoretza egiten nabil; biek daukate harremana kirolagaz.

Txikitako oroitzapen bat?

1992ko Bartzelonako olinpiada.

Badaukazu ohitura txarren bat?

Oso burugogorra naiz. Batetik positiboa da, kirolean garaipenak lortzeko; bestetik, bizitzaren beste esparruetan ere oso burugogorra naiz.

Aitor dezakezun bizio bat?

Txokolatea, bizio handia da.

Errepikatuko zenukeen bidaiarik badago?

Tallinera, Estoniara. Txapelketagatik, ezin izan nuen osotasunean bizi.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Ametsak lortzeko babesak eman didaten inguruko pertsonarik barik.

Zein da zure ametsetako bat?

Olinpiadetan txapeldun izatea.

Eguna ala gaua?

Eguna, eguzkia eta argia gustuko ditut.

Parrandarik politenak non?

Nire herrian, Algortako Portu Zaharrean.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Galea, inork trabarik egin barik goza daiteke itsasoari begira. ○

LABURREAN— Yahaira Agirre (Getxo, 1980) goi-mailako judoka zazpigarren lotu zen Europako txapelketan apirilean, Vienan, baina baditu hamaika domina lepoan. Espainiako 16 txapelketatan parte hartu du, 1995eko gazteen olinpiadetan txapeldun izan zen, munduko azpi-txapeldun unibertsitate mailan 2002an eta 2007an... Getxoko kirolaririk onenari saria eman zion Udalak 2007an. Areetako ludotekan judo eskola eman zuen apirilaren amaieran, umeak kirolera eta euskarara hurbiltzeko ekimenaren baitan. Galderok egiteko aukerarik ezin genuen galdu.



PRAKAGORRI



ERAGINKORTASUNA, KALITATEA ETA EMAITZAK BERMATUZ.

Ulermen jasoko irakurketa azkarra, memoria garatzeko teknikak, ikasketarako metodo aurreratuak, denboraren optimizazioa eta kudeaketa, kontzentrazioa, pertsona eta lanbide garapena, oratoria, idazkera bikaina..., etab.

IKASKETETAN ETA LAN JARDUNEAN ETEKIN HOBEA LORTZEKO TEKNIKA AURRERATUAK ESKAINTZEN DITUGU.

PRAKAGORRI S.L. Jesusen Bihotza kalea 2A GETXO (BIZKAIA)
Tf. 685 73 54 84 - 94 491 57 63 - prakagorri@prakagorri.es - www.prakagorri.es

ESTREINALDIA

Maiatzaren 13a, 20:00etan
Getxoko Andra Mari elizan

Zatoz!!



BABESLEA



Euzko Foruak



Getxo

Udala - Ayuntamiento



GETXO 2 AKORDATEN NAZ

www.ukaldizkaria.biz

URIBE KOSTAKO
ALDIZKARIAREN
EKOIZPENA

uk

DVD

Logo Getxoko: 31-1327-23710



Herri baten altxor preziatua da bere nagusien oroimena. Bigarren lan honetan edadeko getxotarrek Azkorriko haizeak eroandako istorioen berri ematen digute. Selineek, autoen ardura barik, belardietan egiten zituzten olgetak, belardi horietako belar guztiak ezagutzen zituzten andreen osasun jakintza, lantegiek itsasora jaurtitako zaborrak hondartzetatik batu eta erabilgarri bihurtzen zituen herriaren kondaira. Daukaguna eman digutenean testigantza bizia. Euren gurasoek irakatsi zieten hizkuntzan kontatua.